# Premio/Saria

## Orfeón Donostiarra/Donostiako Orfeoia
## UPV/EHU

**Investigación musical**
**Musika arloko ikerketa**

**Reconocimiento a la labor y trayectoria musical**
**Musikaren arloko lana eta ibilbidea aitormena**

# 2001-2010



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKAMPUS
Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional

FUNDACION
ORFEON DONOSTIARRA
FUNDAZIOA

Fotos / Argazkiak: Juantxo Egaña

Depósito Legal / Lege Gordailua: SS-943-2011

Fotocomposición, impresión y encuadeernación / Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa:
Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa)

# Premio/Saria

## Orfeón Donostiarra/Donostiako Orfeoia
## UPV/EHU

**Investigación musical**
**Musika arloko ikerketa**

**Reconocimiento a la labor**
**wy trayectoria musical**
**Musikaren arloko lana**
**eta ibilbidea aitormena**

# 2001-2010

# Índice / Aurkibidea


Saluda / Agurra ..... 6/7

I Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren I. Saria
*"El Orfeón Donostiarra 1897/1997 - Proyección social, cultural y educativa"*, María del Carmen de las Cuevas Hevia ..... 8

I Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko I. Saria
Antón García Abril ..... 10

II Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren II. Saria
*"La organería romántica en el País Vasco y Navarra (1856-1940)"*, Esteban Elizondo Iriarte ..... 12

II Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko II. Saria
Tomás Aragués ..... 14

III Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren III. Saria
*"El Maestro Enrique Fernández Arbós y su relación con San Sebastián y el Orfeón Donostiarra"*, Martín Baeza Rubio ..... 16

III Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko III. Saria
Francisco Escudero (In memorian) ..... 18

IV Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren IV. Saria
*"El movimiento coral vasco: tradición, cultura y educación"*, Gotzon Ibarretxe Txakartegi ..... 20

IV Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko IV. Saria
Javier Bello - Portu (In memorian) ..... 24

V Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren V. Saria
*"Aptitudes musicales y aprendizaje instrumental de personas con necesidades educativas especiales"*, José Ramón Vitoria Gallastegi ..... 26

V Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko V. Saria
José Luis Ansorena ..... 28

VI Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren VI. Saria
*“La música vasca en la época barroca: Juan García Salazar (1639-1710)”*, Paulino Capdepón Verdú ........ 30

VI Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko VI. Saria
José Manuel Azkue ........ 32

VII Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren VII. Saria
*“La canción para voz y piano en el País Vasco entre 1870 y 1939: catalogación y estudio”*, Isabel Díaz Morlán ........ 34

VII Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko VII. Saria
Coro Easo Abesbatza ........ 36

VIII Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren VIII. Saria
*“El director Ataúlfo Argenta: estudio biográfico, analítico e interpretativo”*, Juan González Castelao ........ 38

VIII Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko VIII. Saria
Imanol Urbieta Beristain ........ 40

IX Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren IX. Saria
*“Francisco Escudero. Vida y creación musical”*, Itziar Larrinaga Cuadra ........ 42

IX Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko IX. Saria
José Antonio Echenique Echeverría ........ 44

X Premio a la investigación musical / Musikaren arloko Ikerketaren X. Saria
*“La comunicación autopoiética. Fundamento para la interpretación musical: su estudio en la obra para voz y piano de José Antonio Donostia”*, Josu Okiñena Unanue ........ 46

X Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko X. Saria
José Ignacio Ansorena Miner ........ 48

X Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical (Accésit) / Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko X. Saria (Accesita)
Txirri, Mirri eta Txiribiton ........ 50

# Saluda

La Universidad del País Vasco (UPV/EHU), como institución de educación superior tiene un compromiso ineludible con la sociedad mediante la docencia, la investigación, el estudio, la proyección cultural y universitaria. El Orfeón Donostiarra despliega su labor en el ámbito de la misma coral, altamente reconocida por doquier, y no se limita a la impartición de conciertos, sino también a otras actividades de carácter formativo musical de alto interés. Teniendo en cuenta estos objetivos, cuando en 1999, desde la UPV/EHU y el Orfeón, se pensó en firmar el convenio de colaboración entre estas dos entidades, una de las primeras iniciativas que se plantearon fue la creación de un premio anual con una doble finalidad: reconocer la labor y la trayectoria de personalidades que hubieran destacado en el campo de la música, y por otro lado, incentivar la investigación musical.

No había dudas de que, en un país que ha sido cuna de grandes músicos, la primera modalidad del premio tuviera continuidad en el tiempo. Pero no se había explorado a fondo el mundo de la investigación musical y se desconocía si todos los años se podría contar con un trabajo serio y documentado.



Las dudas se despejaron pronto. Nos hemos encontrado con personas concienzudas que dedican su energía y su tiempo a investigar en este amplísimo terreno del arte de los sonidos, que recluidas en la soledad de los archivos y bibliotecas, invierten años de sus vidas en la búsqueda, clasificación y redacción de un valioso material. Su difusión (en marketing empresarial lo llaman lanzamiento del producto) prácticamente es su única recompensa, pero su trabajo contribuye a ampliar horizontes en la cultura.

Creemos que en diez ediciones hemos contribuido a inyectar ánimo a una decena de investigadores que –así nos lo han comentado algunos– se han sentido respaldados para continuar investigando. Podemos asegurar que el Premio Orfeón-UPV/EHU es ya un referente en el mundo universitario y musical, y para ambas instituciones constituye un honor colaborar en esta labor.

**Cristina Uriarte**
Vicerrectora del Campus de
Gipuzkoa de la UPV/EHU

**José Mª Echarri**
Presidente del
Orfeón Donostiarra

# Agurra

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) goi-hezkuntzako erakundea denez, konpromiso ekidinezina du gizartearekin, irakaskuntzaren, ikerketaren, azterketaren eta proiekzio kultural eta unibertsitarioaren bidez. Donostiako Orfeoiak abesbatzaren beraren arloan garatzen du bere lana, oso-oso ezaguna da nonahi eta ez da kontzertuetara mugatzen, oso interesgarriak diren beste jarduera batzuk ere garatzen dituelako prestakuntza musikalaren esparruan. Helburu horiek kontuan hartuta, 1999an EHUk eta Donostiako Orfeoiak bi erakundeen arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea erabaki zutenean, helburu bikoitzeko urteko saria sortzea izan zen proposatutako lehen ekimenetakoa: batetik, musikaren arloan nabarmendu diren pertsona ospetsuen lana zein ibilbidea onestea eta, bestetik, musikaren arloko ikerketa suspertzea.

Inolako zalantzarik gabe, musikari handien sorlekua izan den herrialdean, sariaren lehen modalitateak bere horretan iraungo zuen urteen joan-etorrian. Hala ere, musikaren arloko ikerketaren mundua sakon arakatu ez zenez, inork ez zekien urtero dokumentatutako behar bezalako lana egin ahal izango zen.

Zalantzak laster argitu ziren, ordea. Pertsona benetan saiatuak ezagutu ditugu, eta euren energia zein denbora guztia ematen dute soinuen artearen esparru zabal-zabal hau ikertzen. Artxibo eta liburutegietako bakardadean murgilduta, euren bizitzako urteak eta urteak ematen dituzte balio handiko materiala bilatzen, sailkatzen eta idazten. Ia-ia, material horren zabalkundea da euren sari bakarra (enpresetako marketinean produktuaren jaulkipena esaten diote), baina euren lana oso lagungarria da kulturako helmugak handiagotzeko orduan.

Gure ustez, hamar ediziotan, adorea eman diegu hamarnaka ikertzaileri, eta, euren esanetan, behar besteko babesa jaso dute, ikertzen jarraitu ahal izateko. Ziurtatu egin dezakegu Orfeoia-EHU Saria erreferentea dela mundu unibertsitario zein musikalean eta bi erakundeentzat ohorea dela zeregin horretan laguntzea.

**Cristina Uriarte**
EHUko Gipuzkoako
Campuseko errektoreordea

**José Mª Echarri**
Donostiako Orfeoiko
presidentea

# I Premio a la investigación musical
# Musikaren arloko Ikerketaren I. Saria



2001





La recepción de este premio hace ya 10 años, me permitió reunir los dos campos de actuación que han marcado y orientado mi vida: mi actividad laboral como profesora e investigadora de la UPV-EHU, y los años que he pasado como orfeonista de base, contralto durante 25 años de mi vida (1974-1999).

El origen de esta afortunada reunión de líneas de actuación, de aficiones, y de vida se sitúa en el año 1996, cuando el director del ORFEON DONOSTIARRA, el maestro Sainz Alfaro previendo la celebración del Centenario de la Entidad, acompañado por el entonces director de la Quincena Musical, Sr. Echenique, y trasladando una idea del director de ERESBIL, Ion Bagües, me propusieron hacer un trabajo de investigación sobre nuestro querido ORFEON DONOSTIARRA.

Esto supuso encontrarme ante un regalo magnífico, "saber" de nuestro Orfeón, de su origen, de sus primeros años, y recordar también los años pasados en él como orfeonista, disfrutando de sus enseñanzas vocales, del aprendizaje de obras corales y sinfónico corales, de escenarios de todo tipo, de recuerdos de convivencia y participación en la entidad.

Orain dela 10 urte sari hau jaso nuenean, nire bizitza zehaztu eta bideratu duten bi jarduketa-arloak uztatu ahal izan nituen: EHUko irakasle eta ikertzaile moduan garatzen nuen lan-jarduera eta oinarrizko orfeoilari moduan emandako urteak, 25 urtez kontraltoa izan nintzen-eta (1974-1999).

Jarduketa-lerroen, zaletasunen eta bizitzaren zorioneko uztarketa hori 1996. urtean hasi zen, erakundearen mendeurrena dela-eta DONOSTIAKO ORFEOIKO zuzendariak, Sainz Alfaro maisuak, eta Musika Hamabostaldiko orduko zuzendariak, Echenique jaunak, ERESBILgo Ion Bagües zuzendariaren ideia aztertu eta gure DONOSTIAKO ORFEOI maiteari buruzko ikerlana egitea proposatu zidatenean.

Aparteko oparia zen niretzat: gure orfeoiaren nondik norakoak, jatorria eta lehen urteak "ezagutzea" eta bertan orfeoilari moduan emandako urteak gogoratzea, gozamena erabatekoa izan zen-eta: ahotsaren arloko irakaskuntzak, abesbatzentzako lanen eta lan sinfonikoen ikaskuntza, era guztietako eszenatokiak, elkarbizitzaren oroitzapenak eta erakundeko partaidetza.

Para el planteamiento del trabajo de investigación que se me había encargado conté con la generosidad habitual del Orfeón, que me permitió acceso libre a su interesantísimo Archivo Histórico. La documentación que en él se guarda, y que ha sido ordenada en diferentes ocasiones, con diferentes criterios, nos brindaba un material muy rico, del que se podían sacar chispas.

Querer saber más de nuestro Orfeón me llevó a observar su actividad artística, procesando todos aquellos datos de actuaciones que aparecían entre la documentación: programas de conciertos, contratos, críticas...; pero también quisimos buscar el porqué de todo este buen hacer, a qué se debía, cuál era la clave de tantos años de vida, sin declives, siempre en progresión. De aquí salió el diseño del trabajo de investigación. Observamos al Orfeón como un grupo social, como algo vivo, que se organiza, que tiene unos objetivos claros de actuación, que propone una actividad original de formación que excede a lo puramente musical. Nos encontramos con una agrupación coral viva, abierta al entorno social en que se ubica y del que recibe su materia prima, los orfeonistas.

Estamos ante una agrupación dinámica que no tiene riesgo de quedar obsoleta, que cada cierto periodo de tiempo sabe dar un giro a su modo de organizarse y de estructurarse, lo que le supone una renovación que le permite estar siempre a la cabeza en la presentación de sus actividades, tanto artísticas como culturales y educativas.

Así pues, lo que en un principio recibí como un gran regalo, poco a poco se fue convirtiendo en una gran y enriquecedora sorpresa, porque el Orfeón no era ni es solo actuaciones y más actuaciones (que no es poco), sino que a esto se añade un planteamiento social, cultural y educativo de altísimo nivel.

El Orfeón era, es y será el reflejo de la sociedad a la que pertenece. Su evolución como agrupación social y su funcionamiento como organización le permiten ir de acuerdo siempre con el tiempo que le toca vivir. Es un ente vivo y dinámico representado por el coro que podemos ver ahora, a los 114 años de su fundación. Un coro joven, que aprende, que proyecta frescura y emoción en sus actuaciones, y que no difiere de aquel coro de hombres que el Maestro Luzuriaga reunió entre ronda y ronda de txikiteo allá por 1897 para ir a cantar a las fiestas de Arrasate.

Este I Premio Orfeón Donostia-UPV/EHU supuso una especial valoración de este rico compendio de acción, formación y proyección social, cultural y educativa que ha sido, es y seguirá siendo el Orfeón Donostiarra.

Eskatutako ikerlana egiteko orduan, orfeoiaren ohiko eskuzabaltasuna jaso nuen, askatasun osoa eman zidalako Artxibo Historiko ezin interesgarriagoan sartzeko. Bertan gordetako agiriak zenbait aldiz sailkatu dituzte era guztietako irizpideen arabera. Artxiboak eskainitako materiala oso aberatsa zenez, atarramendu ona atera ahal zitzaion benetan.

Gure orfeoiari buruz gehiago jakin nahi nuenez, bere jarduera artistikoari erreparatu nion, eta agirien artean ekitaldiei buruz agertzen ziren datu guztiak prozesatu nituen: kontzertuetako egitarauak, kontratuak, kritikak... Era berean, lan-egikera egoki horren guztiaren zergatia ere aztertu nahi izan genuen, zergatik egin zen horrela, non zegoen hain ibilbide luzearen gakoa, zergatik ez zegoen gainbeherarik eta, beti-beti, zergatik egiten zuen aurrera. Horren arabera, ikerlanaren diseinua egin genuen. Orfeoia gizarte-taldetzat hartu genuen, bizirik zegoelako, antolatu egiten zelako, jarduketa-helburu argiak zituelako eta musikaren gainetik zegoen prestakuntza-jarduera originala eskaintzen zuelako. Abesbatza bizirik dago, kokaleku duen ingurune sozialarekin dago harremanetan eta bere lehengaia hartzen du bertatik: orfeoilariak.

Hain zuzen ere, elkarte dinamikoa da, ez du zaharkituta geratzeko arriskurik eta, aldian-aldian, badaki bere antolaera aldatzen eta berriro egituratzen. Hori dela eta, berritu egiten denez, beti-beti aitzindaria da artearen, kulturaren eta hezkuntzaren arloko jarduerak aurkezteko orduan.

Horrela, bada, hasiera bateko opari handia ezusteko handia bezain aberasgarria izan zen apurka-apurka, orfeoiaren helburu bakarra ez delako ekitaldiak eta ekitaldiak egitea (gutxi ez bada ere). Izan ere, maila handi-handiko jarduna garatzen du gizarte, kultur eta hezkuntzaren arloan.

Orfeoia bere gizartearen isla izan da, da eta izango da beti. Gizarte-elkarte moduan bilakatu egiten denez eta erakunde moduan bere jarduera garatzen duenez, unean uneko garaiaren arabera jokatzen du beti. Erakunde bizi bezain dinamikoa da, eta, orain, bere sorreratik 114 urte igaro direnean daukagun abesbatzaren adierazgarri da. Abesbatza gaztea da, ikasi egiten du, freskotasuna zein emozioa eskaintzen ditu bere ekitaldietan eta bat dator 1897an Luzuriaga maisuak Arrasateko jaietan abesteko asmoz txikiteoetan bildu zituen gizonen abesbatza harekin.

Donostiako Orfeoia-EHUren I. Sariak modu berezian balioetsi zuen gizarte, kultur eta hezkuntzaren arloko ekintzak, prestakuntzak eta proiekzioak osatutako bilduma aberats hori. Hain zuzen ere, horixe bera izan da, da eta izango da beti Donostiako Orfeoia.

# I Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
## Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko I. Saria



2001







Celebramos con alegría la conmemoración de la décima edición del Premio Orfeón Donostiarra y la Universidad del País Vasco, esta unión, Música y Universidad, de altísimo significado cultural, marca un planteamiento que todos los amantes de la cultura y el arte debemos recibir con júbilo y esperanza, júbilo por hacer realidad una propuesta que, he proclamado en tantas ocasiones, con el convencimiento de que la música actúa como una forma de espiritualidad sobre los seres humanos de forma que, influidos por ella, individualmente aporten el preciado valor de la convivencia en nuestras sociedades.

Cuando leí mi discurso en el acto de investidura como Doctor Honoris Causa de la Universidad Complutense de Madrid, desarrollé muy ampliamente el planteamiento " La música en la Universidad" o " La Universidad en la Música"

Mantengo la esperanza de que este encuentro de la Universidad del País Vasco con el Orfeón Donostiarra, sea un hecho natural en la sociedad española y sirva de ejemplo para que la música no aparezca como un elemento extraño y esporádico en la Universidad, todo lo contrario, que esta unión suponga una proclama de los altos valores de la música y la espiritualidad que sirva para acercarnos a una convivencia en la que se arraiguen los valores éticos. Mensaje tan necesario y cada vez más imprescindible en una sociedad en la que el materialismo impera y avanza a un ritmo inquietante.

En el año 2001, recibí este galardón que tanto he valorado y que siempre me acompaña en el centro de mi estudio. Supuso para mí un premio extraordinario, tal vez el premio a la Cantata "Lurkantak" que escribí como encargo del Orfeón para ser interpretada en los actos de celebración de su primer centenario. Fue un año largo de gestación de esta cantata, un periodo de mi vida, inolvidable, que me brindó la posibilidad de estudiar a fondo la música popular vasca, descubriendo tantas nuevas bellezas en un largo recorrido étnico por toda la geografía del País Vasco, además de tener la oportunidad de conocer y profundizar en la obra del poeta Lizardi. Pero, sobre todo, me permitió sumergirme en la idiosincrasia del pensamiento popular del pueblo vasco y desde este sentimiento y partiendo de su sensibilidad, comunicar mi mensaje a través de un desarrollo sinfónico-coral creando un cántico espiritual que concebí su expresión sobrevolando los bellos paisajes geográficos, étnicos y humanos del País Vasco.

Guretzat oso pozgarria da Donostiako Orfeoiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Sariaren hamargarren edizioa egitea. Musikaren eta unibertsitatearen arteko uztarketa hori esangura kultural handikoa da, eta kultura zein artea maite ditugun guztiok alaitasunez nahiz itxaropenez hartu beharreko ekimena da. Izan ere, hainbatetan aldarrikatu dudan proposamena egia bihurtzen du, nire ustez gizakietan eragina duen nolabaiteko izpiritualtasuna delako musika eta, haren eraginpean, gizakiek gure gizarteetako elkarbizitzaren balio preziatua eskaintzen dutelako banan-banan.

Madrileko Unibertsitate Konplutentseko Honoris Causa Doktore izendatu nindutenean irakurri nuen diskurtsoan, luze-zabal garatu nuen honako ideia hau: "Musika unibertsitatean" edo "unibertsitatea musikan".

Oraindik ere, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako Orfeoiaren arteko topaketa Espainiako gizarteko berezko egitatea delakoan nago. Hain zuzen ere, eredugarria izan behar da, unibertsitatean musika bera lantzean behingo elementu arrotza izan ez dadin, guztiz kontrakoa baizik. Uztarketa horren bidez, musikaren zein izpiritualtasunaren balio handiak aldarrikatu behar dira, balio etikoetan sustraitutako elkarbizitzara hurbildu ahal izateko. Mezu hori beharrezkoa bezain ezinbestekoa da, gizartean materialismoa nagusi dela eta azkar baino azkarrago hedatzen dela kontuan hartuta.

2001. urtean, sari hau jaso nuen. Oso-oso preziatua da niretzat, eta nire estudioko erdi-erdian dago beti. Ezohiko saria izan zen niretzat. Beharbada, orfeoiak eskatuta bere lehen mendeurreneko ekitaldietan abesteko idatzi nuen "Lurkantak" kantatari emandako saria izan zen. Kantata hori sortzeko urtea luzea izan zen benetan. Nire bizitzako epealdi ahaztezina izan zen, eta euskal herri-musika sakon aztertzeko aukera ere eskaini zidan. Hori dela eta, edertasun berri asko ezagutu nituen Euskadiko geografia osoan zehar egindako ibilbide etniko luzean. Horrez gain, Lizardi olerkariaren lanak sakonago aztertzeko abagunea ere izan nuen. Dena dela, batez ere, euskal herriaren herri-pentsaeraren idiosinkrasian murgildu ahal izan nintzen eta, sentipen horretatik zein bere sentsibilitatetik abiatuta, neure mezua igorri ahal izan nuen garapen sinfoniko-koralaren bitartez. Izan ere, kantu izpirituala sortu nuen, eta, bere adierazpidea eratzeko, Euskadiko paisaia geografiko zein etniko zoragarriak eta giza paisaia ederrak zeharkatu nituen.

# II Premio a la investigación musical

## Musikaren arloko Ikerketaren II. Saria



2002

El 2 de febrero del año 2002, defendí mi tesis doctoral en el coro de la iglesia Santa María la Real de Azkoitia, obteniendo el título de *Doctor en Filosofía y Ciencias de la Educación* por la Universidad de Barcelona. Al ser el objeto de la tesis, *La organería romántica en el País Vasco y Navarra (1856-1940),* defendí la misma alternando los aspectos teóricos con diversas interpretaciones al órgano de compositores como Luis Urteaga, Padre Donosti, Jesús Guridi y César Franck, en el emblemático órgano Cavaillé-Coll (1898) de la parroquia de Azkoitia.

Este trabajo fue editado ese mismo año 2002 por la Universidad del País Vasco, mediante un acuerdo de colaboración con la misma a través de la figura de *Profesor Colaborador Honorífico,* ya que mis estudios de doctorado los había realizado como he dicho antes en la Universidad de Barcelona.

El trabajo de investigación realizado y plasmado en esta publicación que lleva el mismo título de la tesis doctoral, fue distinguido por el Orfeón Donostiarra y la UPV/EHU, con el *Premio a la Investigación Musical* del año 2002. Independientemente de ello, poco después la Universidad de Barcelona distinguió asimismo esta tesis con el *Premio Extraordinario* establecido para destacar ciertas tesis doctorales.

Naturalmente los respaldos recibidos a este trabajo de investigación fueron para mí muy importantes, especialmente por ser el primer profesor de Conservatorio y músico-intérprete del País Vasco, en haber accedido al doctorado a partir de los títulos otorgados por dicha institución.

Sin duda la distinción recibida del Orfeón Donostiarra y de la Universidad del País Vasco, me ha respaldado y animado para continuar en las investigaciones plasmadas en numerosos trabajos musicológicos y publicaciones que he realizado y se han editado posteriormente. También entiendo que estos premios son un paso más para acercar la música a la Universidad y con ello al objetivo de integrar la música en la Universidad tal y como sucede en tantos otros países.

A mi vez, he incorporado estas distinciones a mi historial artístico, y como consecuencia de ello, el nombre de la Universidad del País Vasco y del Orfeón Donostiarra se lee en los programas de los conciertos de órgano que ofrezco con regularidad por todo el mundo.

Muchas gracias por todo ello.

2002ko otsailaren 2an, neure doktoretzako tesia defendatu nuen Azkoitiko Andre Maria elizako koruan, eta Bartzelonako Unibertsitateko *Filosofiako eta Hezkuntza Zientzietako doktore-titulua* lortu nuen. Tesiaren helburua *Euskadiko eta Nafarroako organo erromantikoak (1856-1940)* zenez, alderdi teorikoak eta Luis Urteaga, Aita Donosti, Jesús Guridi eta César Franck musikagileen zenbait organo-interpretazio tartekatu nituen nire aurkezpenean. Horretarako, Azkoitiko parrokiako Cavaillé-Coll (1898) organo esanguratsua erabili nuen.

2002. urtean bertan, Euskal Herriko Unibertsitateak lan hori argitaratu zuen *Ohorezko Irakasle Laguntzaile* moduan erakundearekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren bidez. Izan ere, lehen esan dudanez, Bartzelonako Unibertsitatean egin nituen doktoretzako ikasketak.

Doktoretzako tesiaren izenburu bera daraman argitalpen horretan egindako eta azaldutako ikerlanak Donostiako Orfeoia-EHUko *Musikaren arloko Ikerketaren Saria* jaso zuen 2002. urtean. Hori horrela izanik ere, handik gutxira, Bartzelonako Unibertsitateak ere tesi hori saritu zuen, zenbait doktoretza-tesi nabarmentzeko ezarritako *Ezohiko Sariaren* bidez.

Zer esanik ez, ikerlanak jasotako babesak oso garrantzitsuak izan ziren niretzat, baina, batez ere, erakundeak emandako tituluei esker doktoretza egiteko aukera izan zuen kontserbatorioko lehen irakaslea eta musikagile-interpretea izan nintzelako Euskadin.

Inolako zalantzarik gabe, Donostiako Orfeoiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak emandako sariak behar besteko babesa eta adorea eman dizkit, hainbat lan musikologikotan eta argitalpenetan azaldutako ikerlanak egiten jarraitzeko. Era berean, nire iritziz, sari horiek beste aurrerapauso bat dira, musika unibertsitatera hurbiltzeko eta musika bera unibertsitatean integratzeko, beste hainbat herrialdetan gertatzen den bezala.

Aldi berean, neure historial artistikoan sari horiek guztiak aipatzen ditudanez, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako Orfeoiaren izena agertzen da mundu zabalean eskaintzen ditudan organo-kontzertuetako egitarauetan.

Eskerrik asko guztiagatik.

## II Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical

## Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko II. Saria



2002





En la ***II edición del Premio Orfeón Donostiarra-UPV/EHU*** (Diciembre de 2002) fui distinguido con el prestigioso Premio concedido por estas dos insignes entidades.

El estímulo de este galardón unido a mi incurable inquietud por no permanecer inactivo me ha empujado inevitablemente a incrementar mi trabajo de compositor.

Ahí van como botón de muestra algunos títulos que han surgido con posterioridad a la fecha de la concesión del Premio:

- **SALMOS PARA UNA SINFONIA** (obra compuesta entre los años 1995 y 2004), estrenada el 9 de Marzo de 2007 por el *Orfeón Donostiarra*, la *Coral Andra Mari* y la *Orquesta Sinfónica de Euskadi*.
- Revisión y nueva versión de **SORGINETA** de *J. de Olaizola* (2005), estrenada por la *Coral Andra Mari* y la *Orquesta Sinfónica de Euskadi* en Enero de 2010.
- **DE FORMAS Y MELODIAS** (para Quinteto de Viento) (2006)
- **BIDAI DOINUA** (Seis Lieders para Soprano y Orquesta) (2006). Esta obra –con textos de *Patxi Ezkiaga*– está dedicada a la soprano *AINHOA ARTETA*.
- **PASODOBLES SINFÓNICOS** de Santiago Lope (2006)
- Revisión de mis obras **GURE ETXEA** y **MAGNIFICAT** (2007). Esta revisión fue estrenada en la Parroquia Ntra. Sra. del Juncal (Irún), en Noviembre de 2009, con la *Coral Andra Mari* y la *Orquesta de Musikene*.
- **CONCIERTO DIAMANTINO** para Violoncello y Orquesta (2009). Dedicada al violonchelista *IAGOBA FANLO*.

Actualmente trabajo en dos proyectos: la ***ópera IGNATIUS***, tomando como base la vida de San Ignacio de Loyola y en la obra sinfónica **DE CONTRAPUNTOS Y AMABLES POLIFONIAS**, encargo de la Orquesta Sinfónica de Bilbao.

***Donostiako Orfeoia-EHU Sariaren II. edizioan*** (2002ko abenduan), bi erakunde adierazgarri horiek emandako sari ospetsua jaso nuen.

Saria suspergarria izan zenez eta ezer egin gabe ez egoteko kezka sendaezina dudanez, niretzat ezinbestekoa izan da musikagile-lana areagotzea.

Hona hemen saria jaso ondoren sortu ditudan zenbait izenburu:

- **SINFONIARAKO SALMOAK** (1995etik 2004ra sortutako lana). 2007ko martxoaren 9an estreinatu zuten *Donostiako Orfeoiak*, *Andra Mari Abesbatzak* eta *Euskadiko Orkestra Sinfonikoak*.
- *J. de Olaizolaren* **SORGINETA** lanaren berrikuspena eta bertsio berria (2005). *Andra Mari Abesbatzak* eta *Euskadiko Orkestra Sinfonikoak* estreinatu zuten 2010eko urtarrilean.
- **FORMAK ETA DOINUAK** (haize-boskoterako) (2006).
- **BIDAI DOINUA** (soprano eta orkestrarako sei lieder) (2006). *Patxi Ezkiagaren* testuak dituen lan hau *AINHOA ARTETA* sopranoaren omenezkoa da.

Santiago Loperen **PASODOBLE SINFONIKOAK** (2006).

- Nire **GURE ETXEA** eta **MAGNIFICAT** lanen berrikuspena (2007). Berrikuspen hau Irungo Ihitokiko Andre Mariaren parrokian estreinatu zen 2009ko azaroan, *Andra Mari Abesbatzaren* eta *Musikeneko Orkestraren* eskutik.
- Biolontxelo eta orkestrarako **DIAMANTEZKO KONTZERTUA** (2009). *IAGOBA FANLO* biolontxelo-jolearen omenezko lana da.

Gaur egun, bi proiektutan ari naiz lanean: Loiolako San Inazioren bizitzan oinarritutako ***IGNATIUS*** opera eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak eskatutako **KONTRAPUNTUAK ETA POLIFONIA ATSEGINAK** lan sinfonikoa.

# III Premio a la investigación musical
# Musikaren arloko Ikerketaren III. Saria



2003





Estimados lectores:

Aparte de mi trayectoria internacional como trompetista y director de orquesta, he dedicado y sigo dedicando muchísimas horas de mi tiempo a una actividad que me apasiona, la investigación, especialmente la investigación musical. Creo que todos los músicos deberíamos estar "obligados" a invertir parte de nuestro tiempo en ello, porque entiendo que los que mejor podrían investigar todo lo relacionado con la música y con los músicos son ellos mismos.

Para mi fue un gran honor el reconocimiento que se me dio desde la Universidad del País Vasco y el Orfeón Donostiarra cuando me otorgaron por unanimidad en octubre de 2003 el Premio a la Investigación Musical en la III edición por mi trabajo titulado: "El Maestro Enrique Fernández Arbós y su relación con San Sebastián y el Orfeón Donostiarra". Este premio supuso para mi una gran inyección de moral. Sentí como se recompensaban todas las horas y horas que había invertido en investigar y nunca me flaquearon las fuerzas para seguir dedicando todo el tiempo posible a este trabajo tan esencial desde el punto de vista humanístico como es el de la investigación.

Por otra parte, quisiera aprovechar estas líneas para volver a reivindicar de nuevo públicamente la figura del Maestro Fernández Arbós, para mi sin duda alguna el mejor embajador que ha tenido jamás la música española en el mundo en toda su historia. El Maestro Arbós fue el creador en 1904 de la primera orquesta sinfónica de España (hoy orquesta del Teatro Real de Madrid), más tarde creó y ayudó a crear la friolera de casi otras 20 orquestas más y cientos de sociedades de conciertos en toda España. Fue el artífice de los Ciclos de Conciertos del Casino de San Sebastián, de gran fama mundial durante toda la primera parte del siglo XX.

Dirigió las mejores orquestas del mundo en aquella época, de Europa y América. Encargó y financió de su propio bolsillo más de 270 composiciones que encargó a distintos compositores/as españoles/as. Realizó conciertos por todo el mundo, como decía antes, dirigiendo a las orquestas más prestigiosas. He encontrado hasta la fecha más de 2.150 programas de sus conciertos en todas partes del mundo, encontrando tan solo 16 programas en los cuales no estuviera programada al menos una obra de un compositor/a español/a, lo cual le convierte como decía, en el mejor embajador de la música española en el mundo hasta el momento. Además fue un gran compositor, un gran violinista (llegó a ser Concertino de la Orquesta Filarmónica de Berlín) y un gran pedagogo, habiendo estado al frente de las Cátedras de Violín de Bruselas, de la Universidad de Hamburgo, del Real Conservatorio Superior de Música de Madrid y durante más de 24 años del Royal College of Music de Londres. Todo músico español debería tener muy claro quién era y qué es lo que hizo por la música y los músicos españoles. Pasó mucho tiempo en San Sebastián y amaba a sus gentes y a la ciudad, en la que vivió al final de su vida tras hacerse edificar a su gusto una preciosa casa ubicada hoy día en el Paseo que lleva su nombre. Apoyó y ayudó al Orfeón Donostiarra en muchos momentos difíciles que tuvo que pasar. Falleció terminando sus memorias en Donosti en la noche del 2 al 3 de junio de 1939 y está enterrado en el cementerio de Polloe. Desde estas líneas de nuevo, un sentido homenaje.

Mi agradecimiento al Orfeón Donostiarra y a la Universidad del País Vasco por todo lo que hacen por fomentar la educación, la investigación y la cultura.

Un saludo,

Martín Baeza de Rubio

# III Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
# Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko III. Saria



2003

El Maestro Francisco Escudero recibió el Premio Orfeón Donostiarra-UPV/ EHU a la Creación Musical (in memorian), el 21 de octubre de 2003, 16 meses después de su fallecimiento. Su viuda e hijos, agradecen el reconocimiento otorgado desde tan prestigiosas instituciones a su singularidad humana, artística y pedagógica, irrepetibles.

Este premio tiende un puente hacia el universo socio-cultural que nos rodea y, posibilita un ejercicio entre líneas donde la virtud más importante es la transmisión. Transmisión de la música que dice algo esencial y originario, aunque sea contrapunto de la crisis y la decadencia de nuestra época, llena de paradojas terminales.

La pedagogía creativa de Francisco Escudero, reconocida en este galardón, descubre aspectos de la existencia humana como belleza.

Belleza que señala. Belleza maravillosamente entregada en vuestras rotundas interpretaciones de *Illeta* o *Zigor!* Belleza como la última victoria posible del hombre que ya no tiene esperanza.

Donación reciproca. "Cuando soy más yo es cuando soy tú", como dijo Paul Celan.

El premio recibido y los otorgados a otras tantas personalidades e instituciones a lo largo de estos 10 años, representan la estimulación que testifica y estetifica un territorio cultural, el de la música, que es libertad y sensación, reivindicación de la racionalidad, vinculación a los mitos, a las leyendas y sentimiento de lo sagrado.

Gracias al Orfeón Donostiarra y a la UPV/EHU por ser cómplices de tantas posibilidades transcendentes.

Vda., e hijos de Francisco Escudero

Francisco Escudero maisuak Musikaren arloko Sorkuntzaren Donostiako Orfeoia-EHU Saria jaso zuen (In memorian) 2003ko urriaren 21ean, hil zenetik 16 hilabete igaro ondoren. Bere alargunak eta seme-alabek eskerrak eman nahi dituzte hain erakunde ospetsuek emandako onespenagatik, bere bereizgarritasun pertsonal, artistiko eta pedagogikoa errepikaezina izango da-eta.

Sari honen bitartez, inguruko unibertso sozio-kulturaleranzko zubia ezarri denez, lerro arteko ariketa egin daiteke, eta, bertan, igorpena da nagusi. Funtsezko eta jatorrizko zerbait dioen musika igorri beharra dago, kontraesan terminalez betetako gure garaiko krisiaren zein gainbeheraren kontrapuntua izan arren.

Sari honetan, Francisco Escuderoren pedagogia sortzailea aitortu da, eta edertasuntzat hartutako giza izaeraren alderdien adierazgarri da.

Edertasun zehazgarria. *Illeta* edo *Zigor!* lanetan egin dituzuen interpretazio biribiletan azaldutako edertasun zoragarria. Edertasuna, itxaropenik ez duen gizonaren ustezko azken garaipena.

Elkarrekiko dohaintza. "Niago naizenean, zu zeu naiz", Paul Celanek esan zuenez.

Jasotako saria eta 10 urteotan beste hainbat pertsonari zein erakunderi emandako sariak musikaren lurralde kulturalaren lekukotasun zein estetifikazioaren suspergarriak dira. Musika bera, hain zuzen ere, askatasuna eta sentsazioa da, arrazionaltasunaren aldarrikapena, mito nahiz kondairekiko lotunea eta sakratutasunaren sentipena.

Eskerrik asko Donostiako Orfeoiari eta EHUri, hainbat aukera garrantzitsutako konplizeak izateagatik.

Francisco Escuderoren alarguna eta seme-alabak.

# IV Premio a la investigación musical
## Musikaren arloko Ikerketaren IV. Saria




2004





## De las tradiciones corales al trabajo de cantera

En su *Novum Organum* (1620), Francis Bacon señalaba la necesidad de que el entendimiento humano se librara de los prejuicios que entorpecían las nuevas ideas. Entre estos prejuicios o "ídolos" estaban algunas convenciones sociales, las ideas que habían sido aceptadas sin comprobación o las opiniones de autoridades antiguas que se tomaban como dogmas. De este modo, en el método inductivo propuesto por el filósofo británico, el primer paso consistía en reunir todos los hechos que fueran posibles sobre el fenómeno que se quería investigar.

Con el propósito de estudiar el fenómeno coral vasco, la tesis doctoral *El canto coral como entramado del nacionalismo musical vasco* (Ibarretxe, 1996) trató de ahondar en la realidad de las tradiciones corales vascas y su relación con las teorías etnomusicológicas referidas a la canción vasca, las teorías estéticas y los estilos de composición coral vasca, así como el desarrollo y la evolución de las instituciones implicadas en el coralismo vasco.

Se pudo comprobar que, al igual que había sucedido en otros países del entorno europeo como Alemania, Inglaterra, Holanda, Bélgica o Francia, donde los movimientos corales se habían enmarcado dentro de las reivindicaciones de carácter nacionalista, el coralismo vasco estuvo fuertemente vinculado desde sus orígenes a las sociedades y a la corriente decimonónica de 'renacimiento cultural vasco'. De ahí que el coralismo vasco no surgiera por generación espontánea, ni como mera consecuencia de las tradiciones corales, tal y como pudiera derivarse de uno de los ídolos –aún vigente– que identifica a los vascos como pueblo que canta y baila desde tiempos inmemoriales.

Con todo, el trabajo de investigación *El movimiento coral vasco: tradición, cultura y educación* (Ibarretxe, 2004), valedero para el IV Premio Orfeón Donostiarra-UPV/EHU, supuso un paso hacia delante, ya que ofrecía un panorama más amplio en cuanto a la intervención federativa, así como las implicaciones educativas del movimiento coral vasco en las últimas décadas.

Tras el Concilio Vaticano II en 1963, los coros parroquiales experimentaron una decadencia causada por la disminución de su protagonismo en el culto. Sin embargo, se

## Abesbatzen tradizioetatik harrobiko lanera

Francis Baconek bere *Novum Organum* lanean (1620) adierazten zuenez, giza ulermenak ideia berriak eragozten zituzten aurreiritziak utzi behar zituen alde batera. Aurreiritzi edo "idolo" horien artean, gizarteko zenbait arau zeuden, hau da, egiaztatu gabe onartutako ideiak edo antzinako agintariek adierazitako eta dogmatzat hartutako iritziak. Horrela, filosofo britainiarrak proposatutako metodo induktiboan, ikergaiari buruzko ustezko egitate guztiak biltzea zein lehenengo urratsa.

Euskal abesbatzen fenomenoa aztertzeko asmoz, *Kantu korala, euskal abertzaletasun musikalaren bilbea* (Ibarretxe, 1996) doktoretza-tesiak sakon ikertu nahi izan zituen euskal abesbatzen tradizioen errealitatea, euskal kantagintzako teoria etnomusikologikoekin, teoria estetikoekin eta euskal abesbatzen konposizio-estiloekin zeukaten lotunea eta euskal koralismoan inplikatutako erakundeen garapena nahiz bilakaera.

Europako beste herrialde batzuetan, Alemanian, Ingalaterran, Holandan, Belgikan edo Frantzian, esaterako, mugimendu koralak aldarrikapen nazionalisten barruan kokatu ziren. Hementxe ere, egiaztatu egin ahal izan zen hasiera-hasieratik euskal koralismoak lotura estu-estua eduki zuela elkarteekin eta hemeretzigarren mendeko 'euskal berpizkunde kulturalaren' korrontearekin. Hori dela eta, euskal koralismoa ez zen berez sortu, eta ez zen tradizio koralen ondorioa izan, antzina-antzinatik euskaldunak abestu eta dantzan egiten duen herria direla adierazten duten idoloetakoaren arabera (oraindik ere indarrean dago) halakorik pentsatu bazitekeen ere.

Dena dela, Donostiako Orfeoia-EHUren IV. Saria irabazi zuen *Euskal mugimendu korala: tradizioa, kultura eta hezkuntza* (Ibarretxe, 2004) ikerlana aurrerapausoa izan zen, federazioaren jarduketaren inguruko esparrua zabalagoa zelako eta euskal mugimendu koralak hezkuntza-inplikazio handiagoak zituelako azken hamarkadetan.

1963an, Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean, parrokietako koruek gainbehera egin zuten, gero eta protagonismo txikiagoa zutelako gurtzan. Nolanahi ere, orientazio euskaltzale eta abertzaleko berpizkunde korala gertatu zen hirurogeiko hamarkadan. Joera hori are gehiago areagotu zen

produjo un relanzamiento coral de orientación vasquista y nacionalista en la década de los sesenta, que se catapultó durante la década de los setenta y ochenta, cuando la ayuda proveniente de las instituciones autónomas vascas, así como la iniciativa y esfuerzo de ciertos colectivos, comenzó a canalizarse y concentrarse en torno a las federaciones de coros y, sobre todo, alrededor de la Federación de Coros de Euskalerria.

En la actualidad, la Federación sigue trabajando conjuntamente con los miembros del Certamen Internacional de Coros de Tolosa (C.I.T.) en la difusión y potenciación de la música coral vasca, en todas sus vertientes. Desde el comienzo, en el año 1969, el CIT vio la necesidad de contrastar con escuelas y técnicas diferentes, así como la necesidad de renovar y ampliar el repertorio coral. En efecto, eran muchas y cualificadas las voces que no sólo hablaban ya del mito de las tradiciones corales vascas, sino que lo consideraban como algo contraproducente que sólo invitaba al estancamiento.

Por otro lado, en el País Vasco, a finales de la década de los ochenta se había pulsado el botón de alarma en torno al problema de la escasez de coros infantiles. En consonancia con el declive experimentado por los coros escolares, el número de coros infantiles federados era significativamente menor (no llegaba al centenar) al de los coros de adultos (que superaba los trescientos). Además, se podía constatar que los coros del Este y Norte de Europa dominaban el panorama de los certámenes internacionales, dejando al descubierto las grandes carencias del coralismo vasco.



Con el acicate del Premio obtenido por el trabajo de investigación citado (Ibarretxe, 2004), y con la intención de dar otro paso más en la comprensión de la realidad coral vasca y, en particular, la de los coros infantiles, cuatro profesores/as de la UPV/EHU desarrollamos el proyecto de investigación titulado *La cantera de los coros vascos: entre la educación musical formal y no-formal* (Arriaga, Cuevas, Díaz e Ibarretxe) durante el año 2006, gracias a una ayuda económica concedida por nuestra universidad.

Constatamos la idea de la falta de nuevas voces y el peligro de continuidad de numerosas agrupaciones corales vascas, tal y como habían alertado ya algunos responsables de educación y cultura de diferentes países europeos. Así pues, nos propusimos estudiar algunas instituciones corales vascas que estaban llevando a cabo una intensa labor de cantera, avalados por su trayectoria y prestigio históricos. Éste es el

hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, euskal erakunde autonomiadunen laguntza eta zenbait talderen ekimena zein ahalegina abesbatzen federazioen inguruan eta, batez ere, Euskalerriko Abesbatzen Federazioaren inguruan bideratzen eta metatzen hasi zirenean.

Gaur egun ere, federazioak Tolosako Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketako (CITeko) kideekin batera lan egiten du, era guztietako euskal musika korala zabaltzeko eta bultzatzeko. 1969an hasi zenetik, CITek argi eta garbi eduki zuen zenbait eskola eta teknikarekin erkatu beharra zegoela eta errepertorio korala berritu eta zabaldu egin behar zela. Hain zuzen ere, hainbat ahots adituk euskal tradizio koralen mitoaz hitz egiten zuten, eta, horrez gain, kaltegarria zela uste zuten, gelditasuna areagotzen zuelako.

Bestetik, Euskadin, laurogeiko hamarkadaren amaieran, alarmaren botoia sakatu zen, umeen abesbatza gutxi-gutxi zeudelako. Eskolako abesbatzek gainbehera egin zutenez, umeen abesbatza federatuen kopurua (ehunera ere ez ziren iristen) helduena (hirurehun baino gehiago zeuden) baino askoz txikiagoa zen. Horrez gain, egiaztatu egin zitekeen Europako iparraldeko eta ekialdeko abesbatzak nagusi zirela nazioarteko lehiaketetan. Beraz, agerikoa zen euskal koralismoak gabezia handiak zituela.

Aipatutako ikerlanagatik (Ibarretxe, 2004) lortutako sariaren akuilupean, euskal errealitate koralaren eta, batez ere, umeen abesbatzen errealitatearen ulerkuntzan beste urrats bat eman nahian, EHUko lau irakaslek *Euskal abesbatzen harrobia: musika-hezkuntza formal eta ez-formalaren artean* (Arriaga, Cuevas, Díaz eta Ibarretxe) ikerketa-proiektua garatu genuen 2006. urtean, gure unibertsitateak emandako diru-laguntzari esker.

Egiaztatu egin genuen ahots berririk ez zegoela eta euskal abesbatza askoren jarraipena kolokan zegoela, Europako zenbait herrialdetako hezkuntza nahiz kultura arloko arduradunek ohartarazi zuten bezala. Horrela, bada, zenbait euskal instituzio koral aztertzea erabaki genuen, euren ibilbide zein ospe historikoen bermepean harrobilan bizi-bizia egiten ari zirelako. Horra hor zenbait euskal orfeoi eta abesbatzaren kasua, ume zein gazte ahots ugari erakartzen dituztelako eta, horren ondorioz, belaunaldien arteko txandaketa bermatzen dutelako nolabait. Gainera, elkarte koral horiek jarduketa-planak egiten ari dira, eskolaz kanpoko jardueren bidez jardun korala eskola-inguruneetan eta, hortik kanpo, umeen zein gazteen astialdietan ezartzeko asmoz.

caso de determinados coros y orfeones vascos, que atraen a un número considerable de voces infantiles y juveniles, y con ello consiguen garantizar de algún modo el relevo generacional. Se trata de agrupaciones corales que, además, están elaborando planes de actuación que tratan de insertar la práctica coral en los entornos escolares, a través de actividades extraescolares y, fuera de ahí, en los tiempos de ocio de los niños y jóvenes.

En concreto, los coros infantiles estudiados pertenecen a cuatro instituciones corales (Orfeón Donostiarra, Coral Andra Mari, Sociedad Coral de Bilbao y Asociación Musical Luis Dorao), y las claves que explican el éxito de su funcionamiento tienen que ver con los recursos humanos, técnicos y didácticos que utilizan en su trabajo cotidiano. Como ejemplo de estrategia empleada para el trabajo de cantera, en el caso de los dos coros de Gipuzkoa (Orfeoi Txiki y el coro infantil Orereta) se sigue un esquema análogo en cuanto a la captación de niños y niñas se refiere. Son los propios directores y encargados del coro receptor los que se ocupan de contactar e ir a las escuelas en busca de nuevas voces. Se trata de escuelas que están ubicadas en la propia localidad o en los barrios o zonas de la ciudad más cercanos a la sede de la entidad coral. Se puede hablar, por tanto, de un 'modelo de coros escolares nodriza' (término acuñado por los responsables del Orfeón Donostiarra).

También la influencia familiar, así como la impecable organización de los ensayos, viajes y actuaciones por parte de los coros infantiles y juveniles pertenecientes a las estructuras de esas entidades corales de renombre, hace que los niños y las niñas se integren en los coros infantiles, y se mantengan en el tiempo.

En definitiva, el fortalecimiento de las bases, con la incorporación de un número mayor de integrantes en los coros infantiles, hace posible que haya un número mayor de coralistas que alcanzan el último estadio. Por ello, el trabajo de cantera que vienen realizando algunos coros y orfeones vascos no sólo sirve para paliar –aunque sólo sea en su campo de acción– la situación crítica del coralismo infantil vasco, sino que sobre todo constituye un buen ejemplo para otras muchas agrupaciones corales actuales que tienen que renovar las voces para garantizar su supervivencia.

Hain zuzen ere, aztertutako ume-abesbatzak lau instituzio koraletakoak dira (Donostiako Orfeoia, Andra Mari Abesbatza, Bilboko Abesbatza Elkartea eta Luis Dorao Musika Elkartea), eta euren arrakastaren giltzarriek zerikusia dute egunez eguneko lanean erabiltzen dituzten baliabide pertsonal, tekniko eta didaktikoekin. Harrobiko lanerako erabilitako estrategiaren adierazgarri, Gipuzkoako bi abesbatzetan (Orfeoi Txikin eta Umeen Orereta Abesbatzan), antzeko eskema jarraitzen dute, umeak erakartzeko orduan. Abesbatza hartzaileko zuzendariak eta arduradunak eurak eskolekin harremanetan jarri eta bertara joaten dira ahots berrien bila. Eskola horiek udalerrian bertan edo erakunde koraleko egoitzatik hurbil dauden hirigune edo auzoetan daude kokatuta. Beraz, 'eskolako abesbatzen eredu inudea' dagoela esan daiteke (Donostiako Orfeoiko arduradunek sortutako terminoa da).

Era berean, umeak umeentzako abesbatzetan sartzen dira eta luzaroan irauten dute bertan, familiaren eraginagatik eta erakunde koral ospetsuetako egituretako ume zein gazteen abesbatzek ezin hobeto antolatzen dituztelako entseguak, bidaiak eta ekitaldiak.Azken batean, umeen abesbatzetan kide gehiago sartzean oinarriak sendotu egiten direnez, are koralista gehiago iristen dira azken mailara. Hori dela eta, zenbait euskal abesbatzak eta orfeoik egindako harrobi-lanari esker, euskal ume-koralismoaren egoera larriari aurre egin ahal zaio –euren ekintza-esparruan bakarrik lortu arren–. Aldi berean, gaur egungo beste elkarte koral askorentzako adibide ona ere bada, euren iraupena bermatzeko ahotsak berritu behar dituztenean.

# IV Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
# Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko IV. Saria





2004




Pasear con Javier Bello Portu por San Sebastián era recorrer la historia del Orfeón. "Aquí, don Secundino Esnaola...", "esto me recuerda que Gorostidi..." Y luego estaban, por todas partes, los lugares que traían a la memoria a Antxón Ayestarán y que para él estaban llenos de admiración, afecto y lágrimas: "me hubiera gustado presentártelo...". Escuchabas música con Javier y repasabas los programas del Orfeón, que interpretara sus obras era su orgullo. Si se enfadaba decías "¿y el Orfeón?" y todo volvía a la calma y al entusiasmo. Si el San Sebastián del Orfeón y el Orfeón donostiarra eran su vida, este premio de 2004, formar de esta manera parte de la vida de la institución y de la ciudad, es, sin duda, allí donde esté (que siempre será entre nosotros), una de sus más íntimas y sentidas alegrías.

Germán Yanke

Javier Bello Porturekin Donostian zehar paseatzean, orfeoiaren historiatik egiten zen ibilbidea. "Hemen, Secundino Esnaola jauna...", "honek gogorarazi egiten dit Gorostidi...". Gero, nonahi zeuden Antxón Ayestarán gogorarazten zioten lekuak, Eta miresmenez, leraz zein malkoz beteta zeuden beretzat: "zuri aurkezteko aukera izan banu...". Javierrekin musika entzuten zenuenean, orfeoiko programak berrikusten zenituen. Izan ere, beretzat harro egoteko modukoa zen orfeoiak bere lanak interpretatzea. Haserretzen bazen, "eta orfeoia?" esan eta, berriro ere, lasaitasuna zein algara ziren nagusi. Orfeoiaren Donostia eta Donostiako Orfeoia bere bizitza baziren, 2004ko sari hau, erakundearen eta hiriaren bizitzako partaidea izatea bere alaitasun intimo eta sentituenetakoa da inolako zalantzarik gabe, edonon dagoela ere (beti-beti gurekin egongo den arren).

Germán Yanke

*Aritza lilitzen da maiatzian bethi*

*Ene bihotzak ere zuganat erori*

Así comienza el texto del homenaje que Javier Bello-Portu escribió a la memoria del director del Orfeón Donostiarra y gran amigo Anthon Ayestarán fallecido trágicamente en 1986.

***Bayonne et Paris:***

***deux mois après avoir appris la mort de mon cher ami Anthon Ayestarán. 29 Avril et 6 Mai!***

Este **Garath-Anthon Ayestarán** que surge como fruto de la mútua admiración que ambos se tenían

*Zu zira arbolia, ni zuri lilia.*

*Gure bien fruituia: fidelitatia!*

Javier Bello-Portu recordaba con gran cariño al Orfeón Donostiarra. Ese Orfeón que, de la mano de Anthon, tantas veces había magistralmente interpretado su ***Llanto por Martín Zalacain de Urbía*** y su **Soule.** Javier siempre lo contaba con orgullo.

Estas dos obras escritas en los años 50 conformaban el tríptico inacabado ***Pays Basque*** que parecía nunca se iba a completar con la tercera pieza. Anthon Ayestarán se lo recordaba cada vez que se encontraban y Javier lo cuenta al final de la partitura:

***"Maestro: ¿Cuándo compone la tercera del Pays Basque?***

***Ahí, ahí va...! Esta "complainte" a él dedicada y con él pensada, cierra aquello que comenzó con el "Llanto por Martín Zalacain de Urbía" y siguió con la Soule.***

*Garateren semeak zurengana datoz!*

*Anthon Ayestarán da, bere lagun maite.*

*[...]*

*Muchu eman da ta egon...*

*Anthon: "Adiyo!"*

*Anthon: "Adiyo!"*

***y añade:***

***copia para el tan admirado Orfeón Donostiarra.***

David Azurza

*Aritza lilitzen da maiatzian bethi*

*Ene bihotzak ere zuganat erori*

Horrelaxe hasten da Javier Bello-Portuk 1986an modu tragikoan hildako Anthon Ayestarán lagun minaren eta Donostiako Orfeoiko zuzendariaren omenez idatzitako testua.

***Bayonne et Paris:***

***deux mois après avoir appris la mort de mon cher ami Anthon Ayestarán. 29 Avril et 6 Mai!***

**Garath-Anthon Ayestarán** hau elkarri zioten miresmenaren ondorioz sortu zen.

*Zu zira arbolia, ni zuri lilia.*

*Gure bien fruituia: fidelitatia!*

Javier Bello-Portuk maitasun handiz gogoratzen zuen Donostiako Orfeoia. Anthonen eskutik, orfeoi horrek hainbat aldiz maisutasunez interpretatu zituen bere lanak: ***Martín Zalacain de Urbíagatiko negarra*** eta ***Soule***. Javierrek harro-harro azaltzen zuen beti.

50eko hamarkadan idatzitako bi lan horiek amaitu gabeko ***Pays Basque*** triptikoko osagaiak ziren. Izan ere, bazirudien hirugarren pieza inoiz sortuko ez zuela. Anthon Ayestaránek topo egiten zuten bakoitzean gogoratzen zion, eta Javierrek partituraren amaieran azaldu zuen:

***"Maisu, noiz sortuko duzu Pays Basque laneko hirugarren zatia?***

***Horretan nabil...! Bere omenezkoa da "oso-osorik" eta berarekin pentsatuta dago. "Martín Zalacain de Urbíagatiko negarra" eta "Soule" lanek hasitakoari ematen dio amaiera.***

*Garateren semeak zurengana datoz!*

*Anthon Ayestarán da, bere lagun maite.*

*[...]*

*Muchu eman da ta egon...*

*Anthon: "Adiyo!"*

*Anthon: "Adiyo!"*

***Honako hauxe erantsi zuen:***

***Donostiako Orfeoi miretsiarentzako kopia.***

David Azurza

# V Premio a la investigación musical

## Musikaren arloko Ikerketaren V. Saria




2005





Cuando recibí la atenta carta solicitándome esta aportación inmediatamente acudieron a mi memoria recuerdos imborrables que, sin duda, representan uno de los momentos más felices de mi vida. En ellos se agolpan sensaciones gozosas llenas de plenitud y gratitud hacia el Orfeón Donostiarra y la Universidad del País Vasco UPV/EHU promotores de este prestigioso galardón que tuvieron a bien concederme en la edición correspondiente al año 2005, ya que me dieron la maravillosa oportunidad de compartir mis sentimientos tanto con mi familia y amigos como con el resto de personas que se dieron cita en el acto de concesión de este premio.

Con todo, durante esos felices momentos, también eché de menos a mis ALUMNOS. Gracias a ellos, pude desarrollar este trabajo de investigación. Durante el acto, recordé sus motivaciones de estudio, su entusiasmo y apasionamiento. De un modo u otro, querían mostrar sus capacidades tanto a mí como al resto de alumnos, miembros de su familia y al resto de personas. Recordé muchos momentos, y todos eran tiernos, conmovedores y positivos. Por ello, quisiera aprovechar esta ocasión para, nuevamente, expresar mi infinita gratitud y recuerdo a todas las personas que, con sus aportaciones, hicieron posible el trabajo por el cual fui galardonado, y por extensión, también necesito mostrar mi más sincero agradecimiento a todo el equipo humano donde se integran las dos entidades que gestionan y promueven esta gran iniciativa de apoyar a la investigación musical y reconocimiento a la labor y trayectoria de personalidades y entidades del mundo de la música. Muchas gracias a todos.

Ekarpen hau eskatzeko gutun adeitsua jaso nuenean, oroitzapen ezabaezinak etorri zitzaizkidan burura, eta, inolako zalantzarik gabe, nire bizitzako une zoriontsuenetakoa dira. Bertan, Donostiako Orfeoi eta EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekiko eskerrona da nagusi, 2005eko edizioan eman zidaten sari ospetsuaren sustatzaileak dira-eta. Saria eman zidatenean, aukera zoragarria izan zenuen, nire sentipenak familiarekin, lagunekin eta saria banatzeko ekitaldira hurbildu ziren gainerako pertsonekin partekatzeko.

Dena den, une zoriontsu horietan, IKASLEAK ere faltan bota nituen. Hauei esker garatu nuen saritutako ikerketa lan hau. Ekitaldian zehar, burura etorri zitzaizkidan euren ikasteko motibazioak, berotasunak eta jarritako gogoak. Modu eta era ezberdinetan bai niri, beste ikasleei, zein familiako partaide eta gainontzeko pertsonei euren gaitasunak erakutsi nahi zuten. Pasarte ugari gogoratu nituen eta denak goxoak, hunkigarriak eta baikorrak izan ziren. Hori dela eta, orain, berriro eman nahi dizkiet eskerrak eta gogoratu egin nahi ditut saria eman zidan lanean euren ekarpenak egin zituzten guztiak. Era berean, nire esker beroena bi erakundeetako giza talde osoari, musikaren arloko ikerketa sustatzeko eta musikaren munduko pertsonen zein erakundeen lana eta ibilbidea onesteko ekimen handi hau kudeatu eta bultzatu egiten dutelako. Mila-mila esker guztioi.

# V Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical

# Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko V. Saria



2005





## EN TORNO A NUESTRAS CANCIONES CORALES MÁS POPULARIZADAS

Con estas líneas pretendo contribuir a la clarificación del origen de nuestras canciones corales más popularizadas.

Hator, hator.- Tiene un gran número de versiones corales. Pero su melodía difiere en algunos matices. Fue Resurrección Mª de Azkue el primero que registró en sus cuadernos de campo tres versiones de esta melodía, recogidas en Otzandiano. La más fiable, la que él editó en su Cancionero Popular Vasco.

Oi Betleem.- Melodía tomada por el P. Donostia del cancionero de S. Hiriart, nº 137. Con su armonización adquirió categoría de villancico vasco. Pero el P. Donostia solía observar que nunca lo presentó como tal, pues conocía la versión editada en *Littérature Populaire de Gascogne* (París, 1868). Pero gracias al P. Donostia se popularizó en el País Vasco y fuera de él.

Aintza zeruan.- Es un villancico muy popularizado a partir de la década de 1950, sobre todo en Gipuzkoa. Su texto canta así: *Aintza zeruan, aintza zeruan, aintza zeruan Jaunari; eta*

## GURE ABESTI KORAL EZAGUNENAK

Lerro hauen bidez, gure abesti koral ezagunenen jatorria argitu nahi dut.

Hator, hator.- Bertsio koral ugari ditu. Hala ere, doinua desberdina da zenbait ñabarduratan. Resurrección Mª de Azkue bere landa-idaztietan doinu honen hiru bertsio erregistratu zituen lehenengoa izan zen, eta Otxandion bildu zituen. Fidagarriena bere Cancionero Popular Vasco lanean argitaratu zuena da.

Oi Betleem.- Aita Donostiak S. Hiriarten kantutegitik hartu zuen doinu hau, eta 137.a da. Harmonizatzean, Gabonetako euskal kanta bihurtu zen. Hala ere, Aita Donostiak zioenez, berak ez zuen inoiz horrela aurkeztu, *Littérature Populaire de Gascogne* lanean (Paris, 1868) argitaratutako bertsioa ezagutzen zuen-eta. Dena dela, Aita Donostiari esker, Euskadin bertan eta kanpoan egin zen ezagun.

Aintza zeruan.- 1950eko hamarkadatik, Gabonetako kanta ezagun-ezaguna da, baina, batez ere, Gipuzkoan. Hona hemen kantuaren testua: *Aintza zeruan, aintza zeruan, aintza*

*pakea, eta pakea lurreann gizonari*. La melodía no es vasca. La oyó Manuel Lekuona en un congreso europeo a unos cantores checoslovacos. Al volver a casa le adaptó el euskara señalado agregándole por su parte una estrofa con texto de canción de cuna y melodía tomada del *Ume eder bat,* algo alterada.

Haurtxo pollita seaskan dago. Esta melodía está rodeada de diversidad de opiniones sobre su origen. Fue editada en San Sebastián hacia 1950 en versión de voz y piano con letra de Claudio de Sagarzazu y música de Gabriel Olaizola. Pero éste había tomado la versión francesa en 6/8 y cambió en 2/4. Armonizada por su hermano José Olaizola la estrenó en uno de los conciertos de *Eresoinka*.

Bruno Imaz (Zaldibia) armonizó esta melodía, presentándola como vasco-francesa.

La nuit.- Esta partitura lleva siempre a su lado el nombre del compositor, Jean Philippe Rameau. Pero con frecuencia se omite el del francés Joseph Noyon (1888-1962), que fue quien adaptó para coro de cuatro voces mixtas esta obra, tomando como texto ajeno *O nuit! Viens a apporter a la Terre,* del poeta F. Sciortino. La intervención de Noyon da a esta partitura una redondez impropia del original. Esta obra pertenece a la *Tragédie Lyrique en 5 actes et un Prologue, titulada Hippolyte & Arice*, con texto de l'Abbé Pellegrin, y se halla en la Escena III del Acto I.

¡Oh, Pepita!.- Canción humorística para cuatro voces graves, que juega fundamentalmente con la expresión *¡Oh, Pepita!* Su verdadero compositor no es Müller, sino Pedro Fernández de Retana (Vitoria-Gasteiz, 1852-1927). En 1894 se ordenó sacerdote y en 1895 fue nombrado organista de la Parroquia de San Pedro de Bergara. En esta época es cuando escribió *¡Oh, Pepita!*. Pero por ser él sacerdote, sintió un extraño pudor, que le llevó a firmar su obra con el seudónimo de *Müller*.

Maite.- Es un zortziko compuesto por Pablo Sorozabal Mariezkurrena (Donostia, 1897-1988).

Este zortziko está incrustado en la película *Jai-Alai* (1941). Pero en ella se interpreta en fragmentos repartidos en distintas escenas e interpretados por distintos personajes de la película. Cuando el *Xey* donostiarra alcanzó mucha popularidad, trató de ampliar repertorio. Captaron la belleza del zortziko *Maite* y pidieron a Sorozabal que les dedicara la partitura íntegra e independiente. Pablo Sorozabal la editó para 3 v. i. y piano. Pero en 1954 hizo una versión para voces mixtas y más tarde para coro y orquesta.

*zeruan Jaunari; eta pakea, eta pakea lurrean gizonari*. Ez da euskal doinua. Manuel Lekuonak Europako biltzar batean entzun zien Txekoslovakiako kantari batzuei. Etxera itzuli zenean, euskarara egokitu zuen, eta ahapaldi bat erantsi zion: testua sehaska-kantukoa zen, eta doinua *Ume eder bat* kantutik hartu zuen, zertxobait aldatu zuen arren.

Haurtxo pollita seaskan dago.- Hainbat eta hainbat iritzi daude doinu honen jatorriari buruz. 1950. urtearen inguruan, Donostian argitaratu zen ahots zein pianorako bertsioan. Letra Claudio de Sagarzazurena zen; eta musika, Gabriel Olaizolarena. Hala ere, 6/8ko bertsio frantsesa hartu eta 2/4ra aldatu zuen. José Olaizola anaiak harmonizatu eta *Eresoinkako* kontzertuetako batean estreinatu zuen.

Bruno Imazek (Zaldibia) doinua harmonizatu zuen, eta Euskal Herrikoa izango balitz bezala aurkeztu zuen.

La nuit.- Beti-beti, partitura honek Jean Philippe Rameau musikagilearen izena darama alboan. Edonola ere, sarritan, ez da Joseph Noyon frantsesarena aipatzen (1888-1962), nahiz eta lan hau lau ahots mistoko abesbatzarentzat egokitu zuen, F. Sciortino olerkariaren *O nuit! Viens a apporter a la Terre* testua kontuan hartuta. Noyonek jatorrizkoak ez zeukan biribiltasuna eman zion partitura honi. Lan hau *Hippolyte & Arice* izeneko *Tragédie Lyrique en 5 actes et un Prologuekoa* da. Testua l'Abbé Pellegrinena da, eta I. ekitaldiko III. eszenan agertzen da.

¡Oh, Pepita!.- Lau ahots graberentzako umorezko kanta da, eta, funtsean, *¡Oh, Pepita!* esamoldeaz jokatzen du. Benetako sortzailea ez da Müller, Pedro Fernández de Retana baizik (Vitoria-Gasteiz, 1852-1927). 1894an, apaiz egin zen, eta, 1895ean, Bergarako San Pedro parrokiako organo-jole izendatu zuten. Garai hartan, *¡Oh, Pepita!* idatzi zuen. Hala ere, apaiza zenez, nolabaiteko lotsa sentitu zuen, eta *Müller* ezizenez sinatu zuen lana.

Maite.- Pablo Sorozabal Mariezkurrenak (Donostia, 1897-1988) sortutako zortzikoa da.

Zortziko hau Jai-Alai filmean (1941) dago txertatuta. Bertan, ordea, zenbait eszenatan banatutako pasarteetan interpretatzen dute filmeko zenbait pertsonaiak. Xey donostiarra oso ospetsu egin zenean, errepertorioa zabaltzen ahalegin du zen. Maite zortzikoaren edertasunari erreparatu eta Sorozabali eskatu zioten partitura oso-osorik eta aparte eskaintzeko. Pablo Sorozabalek 3 v.i. eta pianorako editatu zuen. 1954. urtean, ostera, ahots mistoetarako bertsioa egin zuen; eta, geroago, koru zein orkestrarako.

# VI Premio a la investigación musical
## Musikaren arloko Ikerketaren VI. Saria




2006





Siendo estudiante de la Universidad del País Vasco en el campus de Álava a mediados de los años 70 del siglo pasado, comencé a interesarme por la cultura vasca, en especial por la música de la época barroca. Esta fue una de las razones que me impulsó a partir de 1985 a la recuperación y estudio de la obra musical del compositor alavés Juan García de Salazar (1639-1710), en mi opinión uno de los más eminentes músicos europeos de su tiempo. Nacido en 1639 en el pueblo alavés de Tuesta, se formó como mozo de coro en la catedral de Burgos. La sólida formación adquirida le permitió alzarse muy joven con el puesto de maestro de capilla en la colegiata de Toro y posteriormente en las catedrales de Burgo de Osma y Zamora: en esta última permaneció por espacio de cuarenta años hasta su fallecimiento; previamente hubo un intento por parte del compositor alavés por convertir en maestro de capilla de Vitoria, sin que se conozcan los motivos para que no se consumara dicho magisterio.

Una vez que conocí la convocatoria anual de los Premios Orfeón Donostiarra-Universidad del País Vasco, decidí presentar mi candidatura con el trabajo que había venido recopilando sobre Juan García de Salazar. El trabajo presentaba una introducción general sobre la época que le tocó vivir al compositor de Tuesta, un estudio sobre su trayectoria biográfica así como el análisis de su obra musical, que incluía las fuentes y el aparato crítico; se completaba con tres volúmenes de transcripciones de su obra musical litúrgica. La concesión del VI Premio Orfeón Donostiarra-Universidad del País Vasco en su convocatoria de 2006 supuso no sólo una enorme alegría sino también uno de los momentos álgidos de mi trayectoria académica e investigadora, dado el prestigio que había alcanzado este galardón, razón por la cual nunca estaré lo suficientemente agradecido a las instituciones promotoras del Premio: el Orfeón Donostiarra (en mi opinión, el mejor coro del mundo) y la Universidad del País Vasco, donde cimenté mi vocación investigadora. La convocatoria de un premio de investigación supone un estímulo de extraordinaria importancia, dada la escasez de este tipo de galardones. Sólo con iniciativas como la emprendida hace diez años por el Orfeón Donostiarra en colaboración con la Universidad del País Vasco, seremos capaces de recuperar nuestro patrimonio histórico-musical[1], que en el caso del País Vasco es uno de los más sobresalientes.

1. En esta labor de preservación y difusión del patrimonio musical en el País Vasco ha desempeñado un primerísimo papel Eresbil (Archivo de compositores Vascos), dirigido primero por José Luis Ansorena y posteriormente por Jon Bagüés.

Joan den mendeko 70eko hamarkadaren erdialdean Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusean ikasten nengoela, euskal kulturaren eta, batez ere, garai barrokoko musikaren inguruko interesa piztu zitzaidan. Hori dela eta, 1985etik aurrera, Juan García de Salazar musikagile arabarraren (1639-1710) musika-lana berreskuratzen eta aztertzen hasi nintzen, Nire ustez bere sasoiko musikagile europar onenetakoa delako. Salazar 1639an jaio zen Arabako Tuestako herrian, eta koruko mutil moduan prestatu zen Burgosko katedralean. Bere prestakuntza oso sendoa izan zenez, gaztegaztetan Toroko kolegiatako kapera-maisuaren postua lortu zuen. Ondoren, Burgo de Osmako eta Zamorako katedraletan egon zen. Azken horretan, berrogei urte eman zituen, harik eta hil zen arte. Lehenago, ordea, musikagile arabarra Gasteizko kapera-maisua izaten saiatu zen, baina ez zuen lortu eta ez dakigu zergatik.

Donostiako Orfeoia-Euskal Herriko Unibertsitatearen Sarien urteko deialdiaren berri izan nuenean, Juan García de Salazarri buruz egindako lana aurkeztea erabaki nuen. Honako hauexek ziren lanaren atalak: Tuestako musikagilearen garaiari buruzko sarrera orokorra; bere ibilbide biografikoari eta musika-lanei buruzko azterketa, iturriak eta aparatu kritikoa kontuan hartuta; eta, horren osagarri, bere musika-lan liturgikoaren transkripzioen hiru ale. 2006ko deialdian, Donostiako Orfeoia-Euskal Herriko Unibertsitatearen VI. Saria eman zidatenean, oso-oso pozik nengoen, baina, batez ere, nire ibilbide akademiko eta ikertzaileko une gorenetakoa izan zen, sari hori oso-oso ospetsua zelako. Hori dela eta, inoiz ezin izango diet nahi besteko eskerrona eman saria sustatzen duten erakundeei: Donostiako Orfeoia (nire ustez, munduko abesbatza onena) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (bertan, nire ikerketa-bokazioa errotu zen). Ikerketa-sarirako deialdia oso-oso suspergarri garrantzitsua da, horrelako sari gutxi daudela kontuan hartuta. Donostiako Orfeoiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak orain dela hamar urte abian jarritako bezalako ekimenei esker, geure ondare historiko eta musikala[1] berreskuratu ahal izango dugu. Euskadin, gainera, nabarienetakoa dela esan beharra dago.

1. Euskadiko ondare musikala babesteko eta zabaltzeko zereginean, zeresan handi-handia izan du Eresbilek (Euskal Musikagileen Artxiboak). Lehenengo zuzendaria José Luis Ansorena izan zen; eta ostekoa, Jon Bagüés.

VI Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical

Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko VI. Saria



2006

Como esposa de José Manuel, me siento halagada y emocionada por poder deciros lo que yo puedo recordar aquel día al recibir vuestro premio: mucho cariño hacia vosotros y gratitud, y yo añadiría humildad.

Sé lo que supuso para José Manuel acompañar a su querido Orfeón Donostiarra en Santa María y en el órgano cavallé coll, que tanta gloria le dio.

Charito López de Azkue

José Manuelen emaztea naizenez, harro eta hunkituta egoteko modukoa da zuon saria jasotzean egun hartaz zer gogoratzen dudan esatea: zuokiko maitasun zein eskerron handia, baita apaltasuna ere.

Ondo baino hobeto dakit zer izan zen José Manuelentzat Andre Marian eta hainbateko loria eman zion Cavallé Coll organoan Donostiako Orfeoi maitearentzat jotzea.

Charito López de Azkue

**VII Premio a la investigación musical**

**Musikaren arloko Ikerketaren VII. Saria**




2007

# "LA CANCIÓN PARA VOZ Y PIANO EN EL PAÍS VASCO ENTRE 1870 Y 1939: CATALOGACIÓN Y ESTUDIO"

## ISABEL DÍAZ MORLÁN

Cuando en diciembre de 2007 me comunicaron que había recibido el Premio Orfeón Donostiarra-UPV, sentí una alegría que era mezcla de emoción y agradecimiento. La emoción vino cuando me di cuenta de que se iba a reconocer públicamente un trabajo que viví en la intimidad del esfuerzo diario. El agradecimiento era para dos instituciones bien enraizadas en la vida cultural del País Vasco, del mundo académico y del mundo de la interpretación, que llevan ya diez años uniéndose de manera ejemplar para incentivar y alentar la investigación musical. Iniciativas como ésta son necesarias para animar a los jóvenes a emprender la tarea investigadora, y para concienciar a la sociedad de la importancia de este trabajo, que es apasionante pero también paciente.

El galardón supuso también para mí un desahogo económico que me permitió continuar investigando sobre algunos de los muchos caminos que se habían abierto durante los años de trabajo de la tesis doctoral. Regresar a los archivos, abrir cajas y carpetas con partituras antiguas, descubrir una pieza musical manuscrita y volver a la vida su melodía, revisar una y otra vez largos listados, recontar datos y compararlos hasta ver claras algunas conclusiones... y sobre todo leer, reflexionar y al fin escribir. Para poder hacer todo esto, contar con apoyos es muy importante. Apoyos familiares, laborales, y sobre todo, apoyos institucionales. Es una garantía que las instituciones públicas y también las privadas se empeñen en sostener y valorar el trabajo de quienes se deciden a recuperar, proteger y estudiar el patrimonio cultural.

2007ko abenduan, Donostiako Orfeoia-Euskal Herriko Unibertsitatearen Saria jaso nuela jakinarazi zidatenean, zoriontasun itzela sentitu nuen, baita emozioa eta eskerrona ere. Hunkitu egin nintzen, egunez eguneko ahaleginaren intimitatean bizi izan nuen lana jendaurrean onetsi zutenean. Nire esker beroena, ordea, Euskadiko bizitza kulturalean, mundu akademikoan eta interpretazioaren munduan ondo sustraituta zeuden bi erakunderentzat zen. Izan ere, hamar urte daramatzate modu ezin hobean bat egiten, musikaren arloko ikerketa sustatzeko eta suspertzeko. Honelako ekimenak behar-beharrezkoak dira, gazteak ikasten hasi daitezen eta gizarteak lan kilikagarri bezain lasai hau garrantzitsua dela jakin dezan.

Saria, gainera, lasaitu ekonomikoa ere izan zen niretzat, doktoretzako tesirako lan-urteetan urratutako zenbait bideri buruz ikertzen jarraitzeko aukera eman zidaneta. Artxiboetara itzultzea, antzinako partituren kaxak eta karpetak irekitzea, eskuz idatzitako musika-pieza aurkitzea eta, berriro ere, haren doinuari bizia ematea, zerrenda luzeak behin eta berriro berrikustea, datuak berriro zenbatzea eta erkatzea harik eta zenbait ondorio argi ikusi arte... eta, batez ere, irakurtzea, hausnartzea eta, azkenean, idaztea. Hori guztiori egiteko, oso garrantzitsua da babesa edukitzea: Familiarena, lan-arlokoa eta, batez ere, instituzioena. Bermea da instituzio publiko eta pribatuek ondare kulturala berreskuratu, babestu eta aztertzen dutenen lana babestea eta balioestea.

# VII Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
## Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko VII. Saria



2007

El 2 de febrero de 2008 la Universidad del País Vasco y el Orfeón Donostiarra entregan el premio 2007 que reconoce la trayectoria artística del Coro Easo en el campo de la creación musical. ¿Cuál fue nuestra reacción?

Primeramente "SORPRESA". Hasta el momento no se había concedido este premio a ningún colectivo, todos habían sido concedidos a personas destacadas en la música. Era la primera agrupación premiada, en un país con una gran tradición de buenos coros. Además, uno nunca piensa que puede merecer un reconocimiento como éste.

Después, "ILUSIÓN". Porque compartíamos el premio con músicos de este país de gran talla. Porque nos ratificaba la historia del Coro y su trabajo. Y, sobre todo, porque lo concedía un jurado mixto de la Universidad del País Vasco, máximo representante de la cultura de este país, y del Orfeón Donostiarra, nuestro tronco común de donde procedemos y nuestro gran referente coral.

Finalmente, "COMPROMISO". No se habría concedido este premio si a un pasado glorioso hubiera sucedido un presente gris. Y al mencionar el presente, hablamos de la enorme riqueza y variedad de actividades actuales de la Asociación Coro Easo, y que no se limita al tradicional Coro Easo de voces graves.

Toca, por tanto, mirar al futuro, porque, dice Kierkegaard que "la vida solo puede entenderse mirando al pasado, pero vivir solo mirando al futuro" y, en palabras de nuestro gran José Maria Arizmendiarreta, "un presente, por espléndido que fuere, lleva impresa la huella de la caducidad, en la medida que se desliga del futuro". Seguimos trabajando.

Aprovechamos aquel acto para entregar al Orfeón la "Medalla de oro y brillantes", concedida por unanimidad en un concierto de socios del Coro Easo, con motivo del centenario del coro más importante de Euskal Herria.

Santos Sarasola, Presidente

2008ko otsailaren 2an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Donostiako Orfeoiak eman ziguten "Easo Abesbatzaren lana eta ibilbidea musika sorkuntza alorrean" aitortzen zuen 2007 urteko saria. Ze sentimendu sortarazi zigun sari honek?

Lehendabizi "HARRIDURA". Ordura arte musika alorreko meritu indibidualak bakarrik saritzen ziren eta ez kolektibo batenak. Lehen aldiz eman zitzaion saria abesbatza bati. Koru onen tradizio handiko lur honetan, bereziki ezagutzen zen Easo Abesbatzaren errealitatea.

Ondoren, "POZA". Sari hau musikari handiekin partekatzen genuelako, Easo Abesbatzaren historia eta lana berresten zuelako eta, batez ere, Euskal Herriko bi erakunde ospetsuenetakoek, Unibertsitateak eta Donostiako Orfeoiak, sortutako epaimahai batek erabaki zuelako. Izan ere, EHU da guretzat herri honetako kulturaren adierazpen nagusia eta Orfeoia, berriz, gure sorrerazko enborra eta erreferente koral berezia.

Azkenik, "ERANTZUKIZUNA". Easo Abesbatzaren iragana eta oraina baloratu zuten. Ez zuketen gure Elkarte hau sarituko, iragan ospetsu bati oraina eskasak jarraitu izan balio. Eta oraina aipatzean, ekintzen eta aktibitateen multzo anitza ezagutzen zen eta ez, betiko ahots grabeen Easo Abesbatza bakarrik,.

Eman da lanaren aitortza. Baina, Kierkegaard filosofoak zioen bezala "atzera begira bakarrik uler daiteke bizitza, bizi, ordea, aurrera begira bakarrik. Eta gure Jose Mari Arizmendarrieta jaun ospetsuaren hitzetan "orainak, bikaina izan arren, amaieraren arrastoa du berekin, ez badago etorkizunarekin lotua"

Ekitaldi hau erabili genuen Orfeoiari, mendeurrenaren ospakizuna zela eta, Easo Abesbatzaren Batzarrak aho batez onartutako "Urre eta Briliantezko Domina" eta bi erakundeei gure egoitzaren eskulturaren kopia emateko. Oroimen ezin hobea dugu.

Santos Sarasola, Lehendakaria

# VIII Premio a la investigación musical
## Musikaren arloko Ikerketaren VIII. Saria




2008





Recibir el Premio Orfeón Donostiarra-UPV de Investigación Musical por mi tesis doctoral sobre Ataúlfo Argenta ha sido una especial alegría, dada la estrecha relación que tuvo el director castreño con el Orfeón Donostiarra, que llevó a su nombramiento como director honorario de éste en 1953.

Argenta estuvo además muy presente en la vida musical de San Sebastián: en 1944 se presentaba como pianista en la Asociación de Cultura Musical, en 1946 (en su segundo año como director profesional, ya ligado a la ONE) venía a preparar al Orfeón para el *Requiem* de Verdi, por deseo expreso de Franz von Hoesslin, a los pocos meses regresaba para ofrecer conciertos con la Orquesta de Cámara de Madrid (de la que era titular), siguiendo en los años posteriores con sus esperadas visitas de la mano de la Orquesta Nacional. Fueron veinticinco actuaciones en San Sebastián y nada menos que veinticinco actuaciones con el Orfeón en San Sebastián (Quincena Musical incluida), Madrid, Santander, Castro Urdiales, Granada, Oviedo y París.

Muchos de estos conciertos han quedado para el recuerdo como cimas interpretativas de Argenta y del propio Orfeón Donostiarra: la *Novena* de Beethoven en Santander, el *Requiem* de Brahms en París, el *Elías* de Mendelssohn, o el *Mesías* de Haendel, su última actuación antes de su muerte repentina.

Decía Kirill Kondrashin, el gran maestro ruso, que la dirección de orquesta es el oficio más incomprendido: por el público, por la crítica, por los músicos… ¡y por los propios directores! Mi tesis doctoral, y su versión en libro editada por el ICCMU, son también mi humilde aportación al estudio de este arte.

Ataúlfo Argentari buruz egindako doktoretza-tesiagatik Donostiako Orfeoia-Euskal Herriko Unibertsitatearen Saria jasotzea benetako alaitasuna izan da niretzat, Castro Urdialesko zuzendariak harreman estua izan zuelako Donostiako Orfeoiarekin. Hain zuzen ere, bertako ohorezko zuzendari izendatu zuten 1953. urtean.

Horrez gain, Argentak agerpen handia eduki zuen Donostiako bizitza musikalean. 1944an, Kultura Musikalaren Elkarteko piano-jolea izateko aurkeztu zen. 1946an (bere bigarren urtea izan zen zuzendari profesional moduan, eta ONErekin zeukan lotunea), orfeoia bera Verdiren *Requiem* lanerako prestatzera etorri zen, Franz von Hoesslinek berariaz eskatuta. Handik hilabete gutxira, itzuli egin zen, eta kontzertuak eskaini zituen Madrileko Ganbera Orkestrarekin (bertako titularra zen). Osteko urteetan, betiko bisitaldi preziatuak egin zituen Orkestra Nazionalaren eskutik. Hogeita bost ekitaldi egin zituen Donostian, eta orfeoiarekin hogeita bost ekitaldi eskaini zituen Donostian (Musika Hamabostaldia kontuan hartuta), Madrilen, Santanderren, Castro Urdialesen, Granadan, Oviedon eta Parisen.

Horrelako kontzertu asko guztion oroimenean geratu dira, Argentaren eta Donostiako Orfeoiaren beraren interpretazio-goruneak izan dira-eta: Beethovenen *Bederatzigarrena* Santanderren, Brahmsen *Requiema* Parisen, Mendelssohnen *Elias* edo Haendelen *Mesias*. Izan ere, bere azken ekitaldia izan zen bat-batean hil aurretik.

Kirill Kondrashin maisu errusiar handiaren esanetan, orkestrako zuzendaritza ikus-entzuleek, kritikariek, musikariek… eta zuzendariek eurek gutxien onesten duten ogibidea da. Nire doktoretza-tesia eta ICCMUk liburuan argitaratutako bertsioa ere badira arte honen azterketan egin dudan ekarpen apalaren adierazgarri.

## VIII Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
## Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko VIII. Saria



2008





El 6 de febrero de 2009 recibí el Premio Orfeón Donostiarra-UPV/EHU. He de decir que fue una gran sorpresa. Tan grata como inesperada. Un premio otorgado por dos entidades tan importantes para la Cultura de Euskal Herria como son el Orfeón Donostiarra y la Universidad del País Vasco es un gran honor para cualquiera, pero como dije en una entrevista: "Es increíble que me premien por hacer lo que más me gusta".

Desde niño he estado ligado a la música. De hecho cuando me preguntaban qué quería ser de mayor contestaba que quería tener el oficio más alegre, y creo que así lo he tenido. Las mayores satisfacciones que he tenido en mi vida están ligadas a la música. Siempre he pensado que la música, como lenguaje universal que es, nos abre las puertas de otras culturas con las que podemos compartir vivencias y emociones. Por eso en mis canciones he tratado de plasmar aquello que me ha inspirado mi entorno, bien sean niños o abuelos, la montaña o el mar, la mitología o la historia… Me he alimentado del pueblo y he intentado devolvérselo en forma de música.

Eso es lo que he hecho en mi vida y si me han otorgado este premio, ¿debo pensar que he aportado algo importante a nuestra cultura? No lo sé, pero un premio no disgusta a nadie. Al fin y al cabo es un reconocimiento a la trayectoria profesional del que lo recibe. Para mí, que ya tengo 77 años, ha sido un gran estímulo para seguir "trabajando". Al mismo tiempo he de decir que nunca imaginé que iba a compartir lista con artistas que he admirado siempre y de los que tanto he aprendido como son Tomás Aragüés, Francisco Escudero, Javier Bello Portu, José Luis Ansorena o José Manuel Azcue. Verdaderamente es un honor. Muchas gracias.

2009ko otsailaren 6an, Donostiako Orfeoia-Euskal Herriko Unibertsitatearen Saria jaso nuen. Harri eta zur geratu nintzen. Dena dela, ezustekoa bezain atsegina izan zen. Edonorentzat ohore handia da Euskal Herriko kulturarentzat hain garrantzitsuak diren Donostiako Orfeoiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak emandako saria jasotzea. Hala ere, elkarrizketa batean esan nuen bezala, "harrigarria da gustuko dudana egiteagatik saritua izatea".

Txikitatik, lotunea izan dut musikarekin. Izan ere, nagusitan zer izan nahi nuen galdetzen zidatenean, ogibide alaiena eduki nahi nuela erantzuten nien, eta halaxe izan dela uste dut. Bizitzan izan ditudan poztasun handienak musikarekin daude lotuta. Lengoaia unibertsala denez, betidanik pentsatu izan dut musikak beste kultura batzuetako ateak irekitzen dizkigula eta bizipenak zein emozioak partekatu ditzakegula eurekin. Hori dela eta, nire abestietan, inguruneak, umeek edo aitona-amonek, mendiak edo itsasoak, mitologiak edo historiak… adierazi didatena islatzen saiatu naiz. Herria izan dut elikagai, eta musikaren bidez itzuli diot emandako guztia.

Horixe bera egin dute neure bizitzan eta, sari hau eman badidate, gure kulturan ekarpen handia izan dudala pentsatu beharrean nago? Ez dakit, baina saria guztion gustukoa da. Azken batean, jasotzailearen lan-ibilbidearen onespena da. Niretzat, 77 urte ditudala, suspergarri aparta izan da "lanean" jarraitzeko. Aldi berean, ez nuen inoiz pentsatuko betidanik miretsi ditudan artisten zerrenda berean agertuko nintzenik, ikasbide izan ditudala kontuan hartuta: Tomás Aragüés, Francisco Escudero, Javier Bello Portu, José Luis Ansorena edo José Manuel Azcue. Ohorea da benetan. Eskerrik asko.

# IX Premio a la investigación musical
# Musikaren arloko Ikerketaren IX. Saria




2009





Recibí el IX Premio con alegría y emoción. Me sentí realmente muy feliz al celebrar así el fruto de tantos años de investigación. En el acto de entrega recordé con cariño a todos quienes me habían ayudado y acompañado en el camino. Entre ellos, a Francisco Escudero, que tanto me inspiró, a mis maestros y colegas, cuyos sabios consejos recibí a lo largo del trabajo, y a mi familia.

También me pregunté por qué era historiadora de la música. Y, aunque la respuesta que encontré era personal, quise compartirla: lo soy principalmente por amor al ser humano y a su creatividad, por amor al sonido.

La terminación del trabajo me hizo ver la labor del historiador de una manera trascendente, además de científica. Si algo aprendí a lo largo de su realización, fue el oficio de historiadora. Pero reparé también en algo valioso en que lo que me movía en esta apasionante labor era el mantener viva la memoria de quienes nos precedieron todos nuestros antepasados gracias a quienes somos lo que somos ahora. "Somos enanos a lomos de gigantes". Comparto plenamente esta metáfora. Gracias a todos quienes nos precedieron –esos gigantes– es que nosotros podemos tener hoy una visión más completa.

Expreso sinceramente mi agradecimiento al Orfeón Donostiarra y a la Universidad del País Vasco por este reconocimiento.

IX. Saria alaitasunez eta emozioz jaso nuen. Oso-oso zoriontsu nengoen, hainbat ikerketa-urtetako emaitza horrelaxe ospatzean. Banaketa-ekitaldian, maitasunez gogoratu nituen bidaide izan ditudan guztiak. Euren artean, niretzat inspirazio handia izan zen Francisco Escudero, nire irakasleak, lanean zentzuzko aholkuak eman zizkidaten lankideak eta nire familia.

Era berean, neure buruari ere galdetu nion zergatik nintzen musikako historialaria. Nahiz eta erantzuna pertsonala izan, partekatu nahi izan nuen: gizakiak eta euren sormena maite ditudalako, soinua maite dudalako naiz historialaria.

Lana amaitzean, historialariaren lana garrantzitsua bezain zientifikoa zela konturatu nintzen. Lana egitean, historialari-ogibidea ikasi nuen ezeren gainetik. Hala ere, ohartu egin nintzen lan zirraragarri honetan niretzat oso garrantzizkoa zela gure arbaso guztien oroimenari eustea, eurei esker gaur egun garena garelako. "Erraldoien gainean goazen ipotxak gara". Bete-betean bat nator metafora horrekin. Gure arbaso guztiei –erraldoi horiei– esker, gaur egun dugun ikuspegia are osoagoa da.

Esker beroena eman nahi diet Donostiako Orfeoiari eta Euskal Herriko Unibertsitateari onespen hau emateagatik.

# IX Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
# Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko IX. Saria

2009








Este año se cumple la décima edición que el Orfeón Donostiarra y la UPV/EHU otorgan conjuntamente. Yo tuve el honor de recibir ese galardón el año pasado. A pesar de que los actos de reconocimiento y agradecimiento no son muy de mi agrado, he de reconocer que este galardón ocupa un lugar muy especial en mi caja de recuerdos. En efecto, ese símbolo de agradecimiento lo recibí de manos de dos instituciones que han sido mis fieles y hábiles colaboradores durante los años que he sido director de la Quincena Musical. Con la UPV/EHU he colaborado en los Cursos de Verano y con el Orfeón Donostiarra a partir de 1980 en la Quincena Musical de Donostia, todos los años y sin ningún tipo de interrupción.

Parece sencillo, pero estamos hablando de una colaboración de 30 largos años. Ahora que he abierto mi caja de los recuerdos, ¡cuántas actuaciones maravillosas del Orfeón se agolpan en mi mente!

Cierro los ojos y mi mente me lleva a la ceremonia religiosa que con un encanto especial suele celebrarse en Donostia el Día de la Virgen. La Basílica de Nuestra Señora del Coro está abarrotada de gente, y el Orfeón canta en el coro. Sus poderosas voces recorren mi cuerpo como si de un escalofrío se tratara, y, especialmente, a la hora de comulgar, ¡con qué andar acompasado y elegante recorrían el camino desde el coro hacia el altar, a medida que su canto se fusionaba con el de la ciudadanía! ¡Inolvidable!

Asimismo, recuerdo que en Semana Santa el Orfeón cantaba en el viejo teatro Victoria Eugenia el famoso *Mesías* de Haendel y/o *La Pasión según San Mateo*. A su vez, cómo olvidar la “Carmina Burana” y/o el *Réquiem* de Verdi que cantó en la Quincena Musical de finales de los años 60.

Donostiako Orfeoiak eta EHUk elkarrekin banatzen dituzten Sariek 10. edizioa bete dute aurten. Nik iaz izan nuen bereizgarri hori jasotzeko ohorea, eta halako aitorpen eta eskertza ekitaldiak oso gustoko ez ditudan arren, aitortu beharrean nago sari honek toki berezia duela nere oroitzapenen kutxan. Izan ere Hamabostaldiko zuzendari izan naizen urteetan laguntzaile fin eta leial izan ditudan bi erakunderen eskutik jaso nuen esker-oneko ikur hori. EHUrekin Udako Ikastaroetan gauzatu izan dugu elkarlana; Donostiako Orfeoia berriz, 1980. urteaz geroztik izan da Donostiako Musika Hamabostaldian; urtez-urte eta inolako etenik egin gabe.

30 urte luzeko elkarlan mardula, aise esaten da! Eta oroitzapenen kutxa zabalduta nabilen honetan, Orfeoiaren zenbat emanaldi gogoangarri datozkidan gogora!

Begiak itxi eta gogoak, lehenik eta behin, Andra Mari egunez Donostian xarma bereziz ospatu ohi den elizkizunera narama. Koruko Andra Mariaren Basilika jendez gainezka eta koroan Orfeoia kantari. Gorputza astintzeko moduko zirrara eragiten zidaten haien ahots ahaltsuek eta bereziki, jaunartzeko garaian, zer nolako ibilera neurtu eta dotoreziaz egiten zuten korotik aldarerako bidea, euren kantuak herritarrenekin uztartuz. Ahantzezina benetan!

Gogoan dut baita, Aste Santuaren bueltan, Victoria Eugenia antzoki zaharrean, Orfeoiak abestu ohi zuen Haendel-en “Messias” entzutetsua edota San Mateoren araberako Pasioa; eta nola ahaztu 60. hamarkada bukaeran, Hamabostaldiaren baitan, abestu zituen “Carmina Burana” edota Verdiren “Réquiem”a!.

Donostiako Orfeoiko bazkide 1970. urte aldera egin nintzen baina haren jardunaren jarraitzaile eta miresle,

Alrededor del año 1970, me convertí en socio del Orfeón Donostiarra, pero una década antes ya era seguidor y admirador de su trabajo. Acudía allí donde el Orfeón cantaba, y, alguna vez, incluso tuve que hacer auto-stop hasta Madrid, para poder escucharles.

De todas maneras, en esta fiesta de recuerdos en torno al Orfeón quizá lo más especial o sentido sea el concierto que ofreció en el Palacio de Congresos de París el 12 de marzo de 1976. Recuerdo que acudió muchísima gente conocida a aquel concierto de homenaje al prestigioso Charles Münch, que había sido fundador de la Orquesta de París y director de la Orquesta Sinfónica de Boston, entre otros, la esposa del que en aquella época era el presidente de la República Francesa Giscard d´Estaing; el embajador de Estados Unidos Keneth Rush; el embajador de España el donostiarra Miguel Lojendio; y el alcalde de Donostia Francisco Lasa. En lo que respecta al mundo de la música, cabe mencionar al compositor y director musical francés Marcel Landowski; Olivier Messiaen; y/o el que fuera el último alumno de Ravel el músico Manuel Rosenthal. Por último, sobre el escenario, en las labores de interpretación del *Réquiem* de Berlioz, bajo la dirección de Seiji Ozawa, la Orquesta Sinfónica de Boston, la Orquesta de París y el Coro de la Ópera de París; y, junto a ellos, el Orfeón, nuestro querido Orfeón.

Como dicen las críticas de aquella época, la actuación de París fue la actuación “entre las actuaciones”, “espectacular”, “inolvidable”, y el Orfeón dio “una lección de canto” soberbia. Allí, en aquel ambiente mágico, rodeado de gente elegante e importante, me percaté por primera vez del valor humano tan extraordinario que posee el Orfeón Donostiarra.

Efectivamente, nuestro coro amateur compuesto por mujeres y hombres de distinto oficio y pensamiento se encontraba allí, entre los grandes, dando “una lección de canto” y no sólo de canto, sino también de humanidad, de convivencia, de hermandad y de buena voluntad.

Lograr la armonía a través de la armonía musical; y, en el regazo de la música, agrupar y hermanar a través del canto a mujeres y hombres de distinta personalidad, pensamiento y forma de ser. Ese es el espíritu que convierte en algo especial al Orfeón Donostiarra; lo que por primera vez sentí en aquella inolvidable noche de París y lo que en estos 114 años de larga andadura ha mostrado el camino y le ha reportado el éxito al Orfeón.

Antes de cerrar mi caja de recuerdos, quisiera recordar las siguientes palabras de Mikel Laboa:

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi;
kantuz izan dudana zerbait irabazi,
kantuz gostura ditut guziak iretsi;
kantuz ez duta beraz hitzea merezi?

hamarkada bat lehenago bai behintzat. Orfeoia non kantari, saiatzen nintzen han izaten, eta inoiz autoestop-ez ere joan izan nintzen, Madrilera hain zuzen, haiek entzutera.

Hala ere, Orfeoiaren inguruko oroitzapen-festa honetan bereziena, kuttunena akaso, 1976. urteko martxoaren 12an Parisko Batzar Jauregian ospatu zen kontzertuaren baitakoa da. Parisko Orkestraren sortzaile eta Bostongo Orkestra Sinfonikoaren zuzendari izan zen Charles Münch entzutetsuaren omenez egin zen kontzertu hura eta gogoan dut izen handiko jende ugari inguratu zela aparteko emanaldi hartara; tartean ziren, besteak beste, ordu hartan Frantziar Errepublikako presidentea zen Giscard d´Estaing-en emaztea; Estatu Batuetako enbaxadorea zen Keneth Rush; Miguel Lojendio donostiarra, Espainiako enbaxadorea; eta baita Donostiako alkate zen Francisco Lasa jauna ere. Musikaren esparrutik berriz, hantxe ziren Marcel Landowski konposagile eta Frantziako musika zuzendaria; Olivier Messiaen edota Ravel-en azken ikasletzat hartzen den Manuel Rosenthal musikaria. Oholtza gainean azkenik, Berlioz-en “Réquiem”a interpretatzeko lanetan, eta Seiji Ozawaren zuzendaritzapean, Bostongo Orkestra Sinfonikoa, Parisko Orkestra eta Parisko Operako Abesbatza elkartu ziren; eta formazio bikain eta haundi hauen alboan Orfeoia, gure Orfeoi maitea.

Garai hartako kritikek dioten bezala emanaldi “haundietan haundia”, “ikusgarria” “ezin ahantzizkoa” izan zen Parisen ospatutako hura eta Orfeoiak “kantu lezioa” eman zuen inondik ere. Eta hantxe, ingurumari majiko hartan, jende dotore eta garrantzitsuz inguratuta jabetu nintzen, lehenengoz, Donostiako Orfeoiak duen giza-balio apartaz.

Izan ere ogibide eta pentsamolde ezberdinetako gizon-emakumez osatutako gure abesbatza amateur-a hantxe zen, handietan handienen artean, “kantu lezioa” ematen eta ez kantuzkoa bakarrik baita gizatasunezkoa, elkarbizitzakoa, anaitasunezkoa eta borondate onezkoa ere.

Musikaren armoniaz giza armonia lortzea; tajukera, pentsamolde nahiz jokamolde ezberdinetako gizon-emakumeak musikaren magalean elkartu eta kantuz anaitzea. Horixe da, inondik ere, Donostiako Orfeoia berezi egiten duen izpiritua; Parisko gau ahaztezin hartan lehenengoz antzeman nuena eta Orfeoiak, bere 114 urteko ibilbide mardulean bide-erakusle eta arrakasta emaile izan duena.

Oroitzapenen kutxa itxi aurretik Mikel Laboaren hitz batzuk ekarri nahi nituzke gogora:

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi;
kantuz izan dudana zerbait irabazi,
Kantuz gostura ditut guziak iretsi;
Kantuz ez duta beraz hitzea merezi?

# X Premio a la investigación musical
# Musikaren arloko Ikerketaren X. Saria




2010





# “LA COMUNICACIÓN AUTOPOIÉTICA. FUNDAMENTO PARA LA INTERPRETACIÓN MUSICAL: SU ESTUDIO EN LA OBRA PARA VOZ Y PIANO DE JOSÉ ANTONIO DONOSTIA”

JOSU OKIÑENA UNANUE

Han pasado 10 años desde que se convocó por primera vez el Premio Orfeón Donostiarra-UPV/EHU. Este galardón tiene un doble objetivo: por un lado incentivar la investigación musical y por otro reconocer públicamente la labor de personalidades o entidades que hayan destacado en el mundo musical.

Estas dos facetas están directamente relacionadas: es posible concebirlas como una única realidad inseparable, puesto que una labor investigadora en música es indisociable de la praxis instrumental. Sin embargo, esta idea ha sido aceptada con cierta resistencia, probablemente como consecuencia de la imagen tradicional del investigador encerrado en su laboratorio o en una biblioteca.

En otras épocas, se ha sostenido la idea de que el fenómeno musical debía ser vivido únicamente como una realidad espontánea o intuitiva. A pesar de la innegable necesidad de intuición y espontaneidad para producir el hecho musical, la investigación, entendida como una actividad reflexiva y sistemática, es imprescindible para avanzar, y no solo en el arte sino en cualquier otra faceta de la vida.

Por todo esto, quiero dar las gracias tanto al Orfeón Donostiarra como a la Universidad del País Vasco, por promover y alentar el desarrollo de un trabajo de vida, contemplado en dos aspectos que se enriquecen mutuamente: la trayectoria de una labor musical, y la sistematización y reflexión que puede llevarse a cabo a lo largo de la misma.

10 urte igaro dira Donostiako Orfeoia-EHUren Sarirako lehen deialdia egin zenetik. Sariak helburu bikoitza du: batetik, musikaren arloko ikerketa suspertzea eta, bestetik, musikaren munduan nabarmendu diren pertsonen edo erakundeen lana jendaurrean onestea.

Bi alderdi horiek lotura zuzena dute: errealitate banaezin bakartzat hartu daitezke, musikaren arloko ikerlana ezin delako praxi instrumentaletik banatu. Edonola ere, ez da batere erraza izan ideia hori onartzea, ikertzaileen ohiko irudia laborategian edo liburutegian sartuta egotea delako seguruenik.

Beste garai batzuetan adierazitakoaren arabera, musikaren fenomenoa berezko edo intuiziozko errealitatea izango balitz bezala bakarrik bizi behar zen. Egitate musikala sortzeko orduan intuizioa eta berezkotasuna ezinbestekoak izan arren, hausnarketarako jarduera sistematikotzat hartutako ikerketa ere bada funtsezkoa artean zein bizitzako beste edozein arlotan aurrera egiteko.

Hori guztiori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiet Donostiako Orfeoiari eta Euskal Herriko Unibertsitateari, bizi-lanaren garapena sustatu eta suspertzeagatik, elkarren aberasgarri diren bi alderdi kontuan hartuta: musikaren arloko lan-ibilbidea eta ibilbide horretan garatu daitezkeen sistematizazioa eta hausnarketa.

# X Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical

# Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko X. Saria




2010





Arratsalde on denoi eta eskerrik asko. Bihotzez eskertu nahi dizuet zuei guztioi hemen izatea, baita Donostiako Orfeoiari eta Euskal Herriko Unibertsitateari ere urtero ibilbide musikal bati eskaintzen dioten sari hau, aurten niri opatu izana.

Saria emateko, txistulari den pertsona aukeratu duzue. Euskal Kulturan *Petiri Danbolin* fikziozko pertsonaia –*Pello txistularia* esango genuke egungo kaletarrok– gosearen irudikapena izan da. Nikolas Ormaetxea, *Orixe* idazleak herriak kantatzen zizkion bertsoak jaso zituen:

NI NAIZ PETIRI DANBOLIN
GOSEA DAKART NEREKIN.
NIK JOTZEN DIET GOSERIK ERE
DENARI SOINUA BERDIN.

Hauxe da danbolinteroen eginkizuna: *denari*, denei, goserik ere, soinua berdin jotzea. Inorentzat lotsagarri gerta liteke denon zerbitzuan egon beharra, baina ttunttunerook atseginez betetzen dugu eginkizuna, konturatuta gaudelako zein garrantzitsua den gizartearen zerbitzuan aritzea. Eta, bizkorrak garenez, norberaren buruaren zerbitzuan aritzeko erarik zuzenena dela ere ondo dakigu.

Txistulariok ez dugu disko askorik saltzen. Ez gara milaka *fans* histerikoen aurrean jarduten, ez gara *sexsinbolak* (ulergarria, bestalde),... Horrenbeste pailazotzan. Areago euskarazko pailazotzan. Gure lanbideak apalak eta xumeak dira. Hizkuntza txiki eta xalo batez garatzen ditugu, euskaraz. Baina gurekin batera ibiliko bazinate igandeetako goiz deia jotzen Donostiako kaleetan barrena, edo jai eguerdietako kontzertuetan, edo erromerietan; eta ikusiko bazenituzte bidean gurutzatzen zaizkigunen begietako argi printzak, edo sentituko bazenute pailazoek eragindako barrearen emozioa, ziur aski konturatuko zineten zein ohore handia den txistulari eta pailazo izatea.

Arrano eta zapelatzen erresuman, gu txoritxoak gara. Denok gara, baina, garrantzitsu munduarentzat. Ez gara munduko konturik garrantzitsuena. Hutsaren parekoak ere ez.

Cuántas personas se esfuerzan con lo mejor de su inteligencia, sensibilidad y capacidad de entrega ayudando durante años a que el mundo sea un lugar mejor y jamás reciben ningún reconocimiento público por ello. Y cuántos majaderos mentecatos y egoístas tienen las vitrinas de sus casas repletas de premios y galardones honoríficos. No quisiera pertenecer a este segundo grupo. Pero me comienza a preocupar tanto agasajo.

Quizá sea, como en tantas cuestiones de la vida, cuestión de suerte. La mía ha estado tocada por la buena suerte y no me cansaré de agradecerlo. Porque la Naturaleza, la Divinidad, la familia, los amigos… me han dado siempre mucho más de lo que necesitaba para ser feliz. También este reconocimiento a una trayectoria musical.

He señalado anteriormente que los txistularis y los payasos tenemos algo en común: nuestros oficios son humildes. Nos lo recordó hace ya bastantes años en Langraitz, Nanclares de la Oca, un alguacil que nos acompañó al recinto en que los entonces cuatro miembros de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián debíamos interpretar un concierto en formato de banda tradicional. Al llegar a la sala nos preguntó:

– ¿Y vosotros qué corriente usáis, 125 o 220 V?
– Nosotros no usamos corriente eléctrica.
– ¡Pues vaya unos músicos de los cojones!

Con la plena convicción de que nuestros oficios son exactamente lo que definió el alguacil alavés, quiero expresar mi agradecimiento interpretando una obra con el txistu y el tamboril, instrumentos que son ya como una prolongación de mi persona. He elegido una pieza que titulé **Arizkun** y recoge las melodías de dos danzas tradicionales de aquel pueblecito del valle de Baztán. **Sagar dantza** la primera, en que los mozos de la localidad ejecutan sus pasos tocados con grandes capirones coloristas y manzanas en las manos. Comienza con un ritmo indescriptible, mescolanza singular de compases diversos, hasta que se remansa en un aire de vals tranquilo. Tras la breve **llamada** de la música, le sigue la **Mutil dantza**, la danza de mozos. Como tantos aspectos de la cultura popular nos enseña mucho de la manera de ser de los humanos. Existe en los últimos años gran polémica en todo el valle a cuenta de si las danzantes femeninas pueden intervenir en este tipo de danzas. Pero nadie parece poner en cuestión si las puede bailar un sesentón cargado de hijos, por ejemplo, que de mozo (de "mutil") no tiene nada. Parece una alegoría de nuestro país.



En esta **Mutil dantza**, la melodía en un momento pide la colaboración de todo el entorno. Tras una breve figura, se silencia y hay que responderle con tres aplausos, que son como un quiebro mágico, con ese número trino venerado desde la antigüedad, para recordarnos que, por muy compleja que nos parezca la vida y por mucho que además nosotros la compliquemos, en su más profundo pálpito siempre existe una necesidad común a todas las personas, necesidad de ternura y cariño, de **sentir** que se vive junto a otros. A mí, la ternura y el cariño, me han rodeado en la vida, especialmente por parte de mi familia que está aquí presente y de muchos amigos. Este premio también lo entiendo como una caricia que agradezco.

# X Premio Reconocimiento a la labor y trayectoria musical
(Accésit)

# Musikaren arloko lana eta ibilbidea onesteko X. Saria
(Accesita)



2010





Hitz batzuk eskatu dizkiguzue, Sari honen X. urteurrena dela eta, argitara emango den liburuirako. Onena, gure ustez, han bertan esan genituenak paperean jartzea. Hemen dituzue.

Nos piden unas palabras para el libro que se ha de editar con motivo de la décima edición de estos premios del Orfeón Donostiarra y la Universidad del País Vasco. Lo más apropiado, creemos, es recoger la intervención que realizamos al recogerlo.

**XABIER:** Oraintsu bete ditugu hogeita hemeretzi urte pailazotzan. Urte asko diren arren, ziztu bizian pasa dira. Ez dizuet gezurrik esango, gurea bezalako herri batean, ez da beti erraza izan. Barrearen aldarrikapena egitea ez da bizi izan ditugun garai guztietan ondo ikusia izan gure artean. Baina merezi izan du.

**TXEMA:** Ni zaharragoa naiz eta kaskatuago (hankari begirada) nago[3], baina urte gutxiago eman ditut taldean. Hala ere, Xabierren ondorio bera errepikatuko dut: merezi izan du.

**XABIER:** La música ha sido siempre una buenísima compañera en el trabajo payasil, ayuda a expresar los sentimientos. La hemos trabajado con ganas, con dedicación y sobre todo con respeto a la tradición popular de la que surgíamos, donde había auténticos maestros. El trabajo de Manuel Lekuona, Nemesio Etxaniz, Joseba Markiegi, Imanol Urbieta, Anjel Lertxundi y otros tantos ha sido para nosotros punto de arranque y modelo. Así hemos creado y grabado unas doscientas canciones entre las que, como en botica, hay de todo, pero que podemos firmar sin avergonzarnos. No es poco.

**TXEMA:** Yo soy el que menos ha participado en las canciones, pero mi papel ha sido fundamental. Además de traer los bocadillos en las arduas jornadas creativas, mis bocinazos tenían que estar siempre afinados y ajustados al ritmo.

**MIRRI:** Aizue, nahikoa da. Zein plastamari galantak zareten. Hemen hasten dira filosofatzen eta harri koskorrak aspertzeko ere gauza dira bi hauek. Zuek niri kasu egin. Ea, ba al dakizue kantatzen? Denok nirekin batera: Pintto, Pintto…

(Ordurako iada Txirri eta Txiribiton hasi ziren parte hartzen).

**TXIRRI:** Mirri, mesedez, kanta hori oso ezaguna duk, baina guk beste batzuk ere baditiagu.

**MIRRI:** Horixe baietz. Paristik natorren artista bat naiz ni…(publiko osoa kantari).

**TXIRIBITON:** Mok, mok! (Zapi zuria).

**MIRRI:** Zapi zuri honekin jolasten gera…(publikoa kabtari). Altza, Pelipe, trulalai…!

**TXIRRI:** Ez, nik esan nahi nian abesti sentimentalak ere sortu ditugula: Behin edo behin pentsatzen baduzu… Edo: Zeinen ederki nabilen zuekin batera hemen… Edo: Eskuak lotu ta gogoak batu…

**TXIRIBITON:** Mok! (Hara boieskauta).

**MIRRI:** Ezin diat ulertu nola eman diguten sari hau, plomo hau tartean dugula.

**TXIRRI:** (Harrotzen hasia) Agian gure abesti ikurra izan liteke Barre egin.

**MIRRI:** Egin beharko diagu. (publikoari begira) Dauzkauzen aurpegi horiekin barre egiten ikastea komeni zaizuelako urjentementean.

**TXIRIBITON:** Mok! (ikastaro azkarra)

**MIRRI:** Horixe, Txiribiton. Kursillo azkarra barre egiten ikasteko.

**TXIRRI:** Ea, gurekin batera egin beharko duzue denok: Ja, Je, Ji, Jo, Ju. Eta gero denok barrez.

**TXIRIBITON:** Mok! deskojoning).

**MIRRI:** Hobe duzue ondo egin, bestela ez gara hemendik joango.

(Txirri eta Mirriren artean kantatzen hasi. Txiribitonek tarteka mok bat edo beste).

**TXI:** LOTSARIK EZ DUGU
BARRE EGITEKO,
**MI:** HAN HEMEN UMOREZ
BETI IBILTZEKO.
**TXI:** OSASUNTSUA TA
ONA DELAKO,
**MI:** ALAITASUN POZA
DUGU GOGOKO.
**TXI:** EZPAINAK ZABALDU,
**MI:** MASAILAK PUZTU,
**TXI:** HORTZAK ERAKUTSI,
**MI:** ARNASA HARTU,
**TXI:** BARREN-BARRENEKO
POZA AGERTU,
**MI:** ALGARA BIZIAZ
DENAK ALAITU!
JA, JE, JI, JO, JU!

**MIRRI:** Ikusten zein ondo aurkitzen zareten orain? Merezi du barre egitea.

**TXIRIBITON:** Mok! (agur).

**TXIRRI:** Agur, adiskideok eta eskerrik asko.



eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campusa

Campus de Excelencia Internacional

FUNDACION

ORFEON DONOSTIARRA

FUNDAZIOA

D.L.: SS-942-2011